


ELGOIBARKO JATORRI ASKOTARIKO HERRITARREN BIZIPEN LINGUISTIKOAK ETA EUSKARAREKIKO DITUZTEN PERTZEPZIOAK HURBILKETA KUALITATIBOA

**EKHINE EIZAGIRRE ZUBIAURRE
SAIOA IRAOLA URKIOLA**



**GOTZON GARATE
IKERKETA BEKA**

2022/GOTZON GARATE BEKA

ELGOIBARKO JATORRI ASKOTARIKO HERRITARREN BIZIPEN LINGUISTIKOAK ETA EUSKARAREKIKO DITUZTEN PERTZEPZIOAK HURBILKETA KUALITATIBOA

EKHINE EIZAGIRRE ZUBIAURRE ETA
SAIOA IRAOLA URKIOLA

Argitaratzailea: Elgoibarko Udala

Egileak: Ekhine Eizagirre Zubiaurre eta Saioa Iraola Urkiola

Inprimaketa: KOPILAN

Lege gordailua: LG D 307-2023

ISBN: 978-84-09-50180-9

_AURKIBIDEA

ATARIKOA	5
KOKAPEN TEORIKOA.....	7
Sarrera	7
Migrazioari buruzko datu estatistiko eta sozialak	8
Elgoibarko testuinguru soziolinguistikoari begirada	8
Jatorri askotariko herritarrak, arrazakeria eta desberdinkeria sozialak	13
Hizkuntza, etnizitatea eta migrazioak. Hizkuntza ideologia eta botere harremanen eragina.	14
Eraldaketak eta esku-hartzeko zenbait gako	20
METODOLOGIA	23
EMAITZEN ANALISIA.....	26
Aurkezpenak.....	26
Bizi baldintzak eta migrazio testuingurua.....	32
Usadio eta harremanak.....	35
Txirikordatutako zapalkuntzak	36
Hizkuntza erradiografia.....	42
Elgoibarko hizkuntza testuinguruari buruzko pertzepzioa.....	42
Iritsiera eta harrera	44
Hamabi buru, hamaika hizkuntza.....	45
Han hemenkako hizkuntza txiki eta ez hegemonikoak.....	46
Hizkuntzaren erabilera	48
Hizkuntza ohiturak	48
Hizkuntza jabekuntza.....	49
Bizipen linguistikoak	51
Oztopo eta abantailak.....	51
Motibazioa.....	54
Entzuketa.....	56
Hizkuntzari atxikitako balioak	56
Hizkuntza ideologiak	58
Proposamen eta erronkak.....	60
ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	62
BIBLIOGRAFIA	66
ERANSKINAK	69
Jatorrizko aipuak	69

Ikerlan hau 2022an Elgoibarko udalak emandako Gotzon Garate bekaren laguntzarekin egin dugu. Asko izan dira era batera edo bestera lan hau posible egin dutenak. Lehenik eta behin, bihotzez, eskerrak zuen bizi esperientziak gurekin partekatu dituzuen hamabi elkarrizketatuei: Cian, Marco, Patxi, Anne, Ana, Fátima, Sekou, Angie, Aroa, Lekuona, Ling eta Shahidi. Eskerrik asko, baita, Elgoibarko udalari ere, azterlan hau egi- teko aukera emateagatik. Nola ez, bekaren jarraipena egin duzuenoi eta, noski, elkarrizketak lotzen lagundu diguzuenoi: Imanol, Gorane, Miren eta Kristinari. Baita ikerketaren hastapenetan zuen jakintza eta ekarpenak gurekin partekatu zenituztenei ere: Ainhoa Mendibil, Enara Eizagirre, Garbiñe Bereziartua eta Jone Miren Hernandezi. Azkenik, eskerrak inguruko lagunei zuen iritzia eman, zuzenketa lanetan lagundu, ondoan egon eta eusteagatik.

Mila esker, guztiei.

— ATARIKOA

Ikerketa hau, Elgoibarko Udalak 2022. urtean zabalduko Gotzon Garate bekarekin egin dugu. Zortzi hilabeteetan taxututako lan honetan, Elgoibarko jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko dituzten iritzi eta sentipenak izan ditugu aztergai. Ikerlan kualitatibo honek Elgoibarren aurrez egindako bestelako ikerketen osagarri izan nahi du, besteak beste, Soziolinguistika klusterrak 2022ko abenduan kaleratu berri duen *Elgoibarko hizkuntza-aniztasunaren mapa. Datuen azterketa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa* kuantitatiboarena.

Hurbiltze berri honen bitartez Elgoibarko herriaren argazki osatuago bat azaldu nahi dugu, ahotsa eman bertara bizitzera etorri diren jatorri askotariko herritarrei eta gertutik ezagutu zein diren beraien errealitate, behar eta bizipenak. Azterketa kualitatiboa izaki, adin tarte, genero eta jatorri desberdinetako hamabi pertsonari elkarrizketa sakonak egin dizkiegu. Elkarrizketen bitartez, informazio ugari bildu dugu. Lehenik, bizi baldintza eta testuinguruari dagokiona; bigarrenik, askotariko zapalkuntzek duten elkarreragina; hirugarrenik, hizkuntza erradiografia¹ eta, azkenik, bizipen linguistikoak.

Bizipen linguistikoak hobeki ulertu edo ezagutzeko gakoa izan da elkarrizketatuen bizi baldintzak, testuinguruak, zapalkuntza zein pribilegio egoerak² eta hizkuntzen erabilerak ezagutzea, horiek guztiak estuki lotutako aldagaiak baitira eta elkar eragiten baitute. Izan ere, hizkuntza ekintza soziala da (Alonso 2021, 199-200) eta dimentsio soziala du, hiztun taldeen bitartez erabiltzen baita (Eizagirre, Urretarazu eta Zubiria 2019). Horregatik jakin nahi izan dugu nolakoak izan diren elkarrizketatuko lagunek bizitako migrazio prozesuak, zerekin topatu diren Elgoibarrera iristean, zein helduleku, harreman sare eta bizimodu eraiki dituzten bertan.

Azterlana hainbat ataletan banatu dugu. Marko teorikoan, lehenik, migrazioari buruzko datu estatistikoak aipatu eta arreta berezia jarri diogu Elgoibarko testuinguru soziolinguistikoari. Datuez harago, zapalkuntza anitzen arteko gurutzaketak nola gertatzen diren aztertu dugu. Bizipen linguistikoek eta euskararekiko izandako sentipen eta pertzepzioek hizkuntzen arteko hierarkia eta ideologiekin lotura zuzena dutela argi izanik, gurean zer nolako uste eta mailaketak dauden azaldu eta eraldaketa edo esku hartzerako mahaigaineratu diren proposamen eta hausnarketa hainbat aipatu ditugu.

Metodologiaren atalean, ikerketa kualitatiboan baliaitutako tekniken berri eman, egin ditugun elkarrizketei buruzko informazioa zehaztu eta horiek nola egin diren azaldu dugu.

Ezbairik gabe, analisia da ikerketa honetan mami handiena biltzen duen atala. Jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak ditugu ikergai, eta, horregatik, analisiaren lehen zatia protagonisten bizimodua eta bizi-baldintzak deskribatzen hasi dugu. Izan ere, ezinbesteko abiapuntua da guretzat elkarrizketatu bakoitzaren bizi testuingurua, ondoren gurekin partekatu dituzten bizipen linguistikoak eta euskararekiko pertzepzioak

1 Erradiografia diogunean, elkarrizketatuak zein hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen dituzten adierazi nahi dugu.

2 Kokapen edo egoera horiek ez dira estankoak eta betierekoak. Testuinguruaren arabera aldakorrak izan daitezke.

era egokian ulertu eta aztertu ahal izateko. Lan honetan, hasieratik zehaztu bezala, antropologia feminista eta epistemologia dekolonialetatik azken hamarkadetan egindako ekarpen teorikoak ardatz izan ditugu. Ikuspegi horretatik jardun dugu, eta, horregatik, protagonisten bizimoldeak testuinguratzeaz gain, gorputz horiek zeharkatzen dituzten askotariko zapalkuntzak nahiz pribilegioak nola txirikordatzen diren landu dugu. Jarraian, hizkuntzaren gaian sakontzeari ekin diogu. Hizkuntza erradiografiaren atalean, elkarrizketatuen iritziz, Elgoibarko herrian zein testuinguru soziolinguistiko dagoen, zer nolako harrera izan duten eta zein hizkuntza hitz egiten dituzten jorratu dugu. Hizkuntza erabilerari, ohitura eta jabekuntzari heldu diogu ondoren, eta, segidan, bizipen linguistikoetan sakondu dugu, hainbat aspekturi erreparatuz: oztopo eta abantailak, motibazioa eta entzuketa eta tratua. Azken aurreko atalean, hizkuntza ideologiak aztertu ditugu, eta, bukatzeko, aurrera begira elkarrizketatuek egindako proposamenak eta identifikatutako erronkak aipatu ditugu.

Ikerketa borobiltze aldera, analisia ondu eta ondorioak eta aurrera begirakoak zerrendatu ditugu. Amaitzeko, esan nahi genuke, hamabi elkarrizketa hauek ezin dutela bere osotasunean Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritarren bizipen linguistiko eta pertzepzioak ordeztu. Era berean, kontakizun bakoitzak du bere balioa eta, aurrez, gaiaren inguruan egindako ikerketa kuantitatibo zein kualitatiboek egindako ekarpen gisa aurkeztu nahi dugu.

— KOKAPEN TEORIKOA

SARRERA

Ikerketa honetan bi aldagai nagusi izan ditugu aztergai, hala nola: jatorri askotariko herritarrak eta hizkuntzaren arteko harremana. Sarreran azaldu dugun bezala, Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritarrengana hurbildu eta elkarrizketa sakonen bitartez beraien bizipen linguistikoak bildu ditugu. Horrez gain, euskararekiko bizipen eta pertzepzioetan sakondu dugu eta erdigunera ekarri ditugu beraien hausnarketa eta iritziak. Horrela, "hemengoak/kanpokoak" dikotomia hautsi (Esteban et al 2017, 39) eta sarri bazterrean geratzen direnei eman diegu ahotsa.

Jatorri askotariko herritarrez mintzo garenean, Euskal Herritik haragoko beste lurralde eta herrialdeetatik Elgoibarrera bizitzera etorri diren herritarrez ari gara. Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritar edo migratzaile gisa izendatu ditugu lan honetan protagonistak. Datu estatistikoak ematean "atzeritar" hitza ere azalduko den arren, aurreko biak lehenetsiko ditugu. Garrantzitsua deritzogu ikerketan Euskal Herrira iritsi diren edo ziren herritarrak nola izendatuko ditugun zehaztea. Izan ere, maiz, "besteak", "kanpotarrak", "atzeritarrak" bezalako hitzak baliatzen ditugu (Esteban et al 2017, 38), eta horrek, begirada okerra sustatzeaz gain, mendekotasun egoerak hauspotu eta aipatuko ditugun aurreste zein botere harremanekin lotura zuzena duela iruditzen zaigu. Gaiok oinarri hartuta ikerlan ugari egin dira azken urteetan, besteak beste: Bat Soziolinguistika aldizkarian argitaratutako, *Immigrazioa, hizkuntza aniztasuna eta euskara* (Aierdi, Uranga eta Iñarra 2021), Jakin aldizkariko, *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean* (Agirre eta Eskisabel 2017) Iñaki Arregi ikerketa bekarekin egindako *Migrazio erdalduna herri euskaldunetan: euskararen inguruko bizipenak eta iritzia* (Eizagirre, Urres-tarazu eta Zubiria 2019) lana, *Bizilagun berriak eta euskara. Gipuzkoara azkenaldian etorri diren bizilagun berriek euskara eta euskal kulturari buruz duten pertzepzioa eta etorkizunean integrazioarako kontuan hartu beharreko zenbait gako* (Irastortza et al 2010). Horietako batzuk baliagarri izan zaizkigu ikerketa honen ikuspegi eta norabidea zehazteko.

Kokapen teoriko honetan, hasteko, migrazioari lotutako datu estatistiko eta sozialak landuko ditugu. Jarraian, Elgoibarko errealitate soziolinguistikoaren argazki laburra egingo dugu. Ondoren, jatorri askotariko herritar izateak, kasu askotan, arrazakeria eta desberdinkeria sozialekin lotura nola duen aztertuko dugu. Hari horri jarraituz, hizkuntza, etnizitateak eta migrazioen arteko amaraunean, hizkuntza ideologiek eta hizkuntzen arteko botere harremanek nolako presentzia duten eta nola ezaugarritzen diren azalduko dugu.

MIGRAZIOARI BURUZKO DATU ESTATISTIKO ETA SOZIALAK

Elgoibarko herriaren argazki soziolinguistikoa egin aurretik, begirada zabalago bat eskaintzen saiatuko gara. Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Gipuzkoako datu batzuk aipatuko ditugu.

EAEEn jatorri askotariko biztanleen joera goranzkoa izan da 1998. urtetik aitzin (Aierdi, Uranga eta Iñarra 2021, 14). Dena den, *Ikuspegi* - Immigrazioaren Euskal Behatokiak jasotako azken datuen arabera, COVID-19aren eraginez, migrazio fluxuek behera egin dute nabarmen. Hori dela eta, 2022ko urtarrilaren 1ean EAEEn atzeritar jatorriko 253.038 pertsona zeuden erroldatuta, hau da, EAEko biztanleria osoaren % 11,5 (*Ikuspegi* - Immigrazioaren Euskal Behatokia 2022, 1-2).


EAEko hizkuntza aniztasunaren mapa txostenean ageri denez, immigrazio horren arrazoi nagusia ekonomikoa izan da, baina, era berean, lekuz aldatu edo bidaiatzeko arrazoi, ezaugarri edo asmoak askotarikoak dira (Aierdi, Uranga eta Iñarra 2021, 15). Halaber, Euskal Herrira migratu duten biztanle kopuru handien presentzia fenomeno aski berria da; izan ere, 1996an EAEEn bizi ziren 23.670 pertsona baino ez ziren atzerrian jaioak, biztanleria osoaren % 1,1 besterik ez (Sanzo 2022, 7).

ELGOIBARKO TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOARI BEGIRADA

Eustaten arabera (2022), Elgoibarren 11.394 lagun bizi dira eta biztanleen % 62,27 euskalduna da. Soziolinguistika klusterrak 2017an egindako Elgoibarko hizkuntzen kale erabileraren neurketaren arabera, ostera, %35,9k egiten zuen euskaraz, %61,9k gazteleraz eta, %2,2k beste hizkuntzetan.

Azken datuek diotenez, Elgoibarren bizi diren 11.464 biztanletik 1.448 jatorri askotariko herritarrak dira (Aierdi eta Uranga 2022, 6), hamarretik bat, alegia. Gipuzkoan, gainontzeko herriein alderatuta, ehuneko handienetakoa duen herria da. Horien artean hiru talde sailkatzen ditu klusterrak: lehena, eta handiena, espainiar nazionalitatearik ez duten biztanleak, bigarrena, Espainiako estatuan jaio arren, espainiar nazionalitatearik ez dutenak, eta azkenik, atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea dutenak (Ibid.). Hona hemen datu zehatzak:

Grafikoa: Biztanleria, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera. Elgoibar, 2022



Iturria: Aierdi eta Uranga 2022, 6

Adin tarteei erreparatuz gero, jatorri askotariko herritar gehienak 25 eta 44 urte artean kokatzen dira, immigrazioko populazio osoaren %49. Biztanleria orokorrean, ostera, adin tarte horretan daudenak %23,1 dira. Oro har, 17 eta 44 urte artekoek %60 osatzen dute, biztanleria osoan ez bezala (%31). Azkenik, nabarmentzekoa da 24 urtez beherako jatorri askotariko 369 herritar daudela, ia laurdena (Aierdi eta Uranga, 2022: 11). Hona hemen datu zehatzak biltzen dituen taula:

Taula: Jatorri atzerritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Elgoibar, 2022 (%)

	Estatu espainiarra		Jatorri atzerritarra		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<16	1.652	16,5	209	14,4	1.861	16,2
16 - 24	756	7,5	160	11	916	8,0
25 - 44	1942	19,4	709	49,0	2.651	23,1
45 - 64	3.085	30,8	313	21,6	3.398	29,6
65 eta gehiago	2.581	25,8	57	3,9	2.638	23,0
	10.016	100,0	1.448	100,0	11.464	100,0

Iturria: Aierdi eta Uranga 2022, 10


Lan munduratzeko arautuari dagokion garai indartsuena islatzen dute datuok. Izan ere gutxi dira 65 urtetik gorako jatorri askotariko herritarrak, eta, gehienak, enplegurako sarbidea duten adin artekoak dira (Uranga 2022). Datu horiei lotuta, sexuaren arabera lan banaketa ageri zaigu, nagusiki, emakume etorkinak baitira gurean etxeko eta zaintza lanak egiten dituztenak, "diskriminazioan oinarritutako Atzerritarren Legea dela medio eta etxeko eremuak ahalbidetzen duen lan harremanen arautzerik ezak lagunduta" (Sagastizabal 2020, 37). Urangak (2022) zehaztu bezala, Abya Yala³ko jatorria duten emakumeek hartzen dituzte, bereziki, beren gain lan horiek. Horrela sortzen dira emakumeak katebegi dituzten zaintza kate globalak (Sagastizabal 2020, 37).

Jatorrizko herrietan zaintzen dituzten pertsonak utzi eta Iparraldeko herrietan inork burutu nahi ez dituen etxeko eta zaintza lanak bere gain hartuko dituzte. [...] Era honetan, XXI. mendeko esklabotza egoera berriak ezagutuko ditugu Iparraldeko herri "eredugarri eta demokratikoetan", batez ere, nagusien zaintzaren testuinguruetan.

Generoari dagokionez, espainiar jatorria nahiz bestelakoa dutenen artean gehiago dira emakumezkoak. Horien jatorriak sexuaren arabera banaketa argia erakusten digu. Abya Yalako herrialdeetatik iritsitako profila bereziki da feminizatua, baita horiei egokitutako lan eskaintza ere (etxeko zaintza lanak eta beste). Afrika, Asia eta Europako artean, berriz, emakumezkoak gutxiago dira. Joera hauek EAEn eta Gipuzkoan ere errepikatzen dira. Sexu roletan eta lanaren banaketa sexualarekin harreman zuzena adierazten digute ondoko datuek:

Diagrama: Jatorri atzerritarreko biztanleen feminizazioa (emakumeak gizonak baino gehiago), herrialdeen arabera. Elgoibar, 2022 (Abs.)

3 Amerika edo Mundu Berriaren ordean erabiltzen den hitza da, antzina lurralde horiek izendatzeko erabiltzen zena. Abya Yalak, «lur bizia» edo «loratzen ari den lurra» esan nahi du. Ikuspegi dekolonialetik aldarrikatzen den hitza ere bada.



Iturria: Aierdi eta Uranga 2022, 9

Soziolinguistika klusterraren arabera, *Elgoibarren hiztun-kopuru handiena izan dezaketen hizkuntzak hogei estatutan dute jatorria* (Aierdi eta Uranga 2022, 13). Horiek jatorri atzerritarren artean %92,9 osatzen dute. Hona hemen jatorri estatuen taula:

Taula: Jatorri atzerritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Elgoibar, 2022 (%)

	JATORRI - ESTATUAK	ABS.	%
1	MAROKO	289	20,0
2	NIKARAGUA	232	16,0
3	BOLIVIA	140	9,7
4	PORTUGAL	72	5,0
5	PAKISTAN	71	4,9
6	ERRUMANIA	70	4,8
7	KUBA	60	4,1
8	SENEGAL	59	4,1
9	EKUADOR	56	3,9
10	VENEZUELA	48	3,3
11	DOMINIKAR ERREPUBLIKA	46	3,2
12	HONDURAS	42	2,9
13	KOLONBIA	37	2,6
14	BRASIL	27	1,9
15	ARGENTINA	20	1,4
16	TXINA	20	1,4
17	NIGERIA	19	1,3
18	FRANTZIA	13	0,9
19	MEXIKO	13	0,9
20	UKRAINA	11	0,8
	20 ESTATUKO JATORRIA	1345	92,9
	GAINERAKO 32 ESTATUKO JATORRIA	103	7,1
		1.448	100,0

Iturria: Aierdi eta Uranga 2022, 10

Gainontzeko 32 estatu ingurutan jatorria duten biztanleek ehuneko txikia osatzen duten arren (%7,1), horien artean hizkuntza-aniztasun handia dago. Elgoibarko jatorri askotariko herritarren datuei erreparatzen badiegu, hauek dira horien artean egon daitezkeen hiztun kopuru handieneko hizkuntzak. Maroko eta Aljeriarren artean, arabiera eta amazigera; Portugal eta Brasildarren artean, portugesa; Pakistandarren artean, urduera eta punjabera; Errumaniarren artean, errumaniera; Senegaldarren artean, wolof, fula, serer edo diola; Txinatarren artean, mandarin txinera eta kantonera; Nigeriarren artean, jorubera, igboera, hausa, fula, ingelesa; Frantziarren artean, frantsesa, bretoiera, okzitaniara, katalana, euskara; eta Ukrainarren artean, ukrainera.

JATORRI ASKOTARIKO HERRITARRAK, ARRAZAKERIA ETA DESBERDINKERIA SOZIALAK

Luis Sanzo González Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko kidearen esanetan, 2008ko finantza krisiaz geroztik, pobrezia eta desberdintasunaren zenbait arrisku faktore azaleratu dira. Horiek bereziki erasaten duten kolektiboa pertsona migratuena da (Sanzo 2022, 10). Desberdinkeria eta pobrezia, talde zehatzetan ez ezik, ezaugarri espezifikoak dituzten jende multzoetan biltzen dira. Izan ere, jakina da, migrazioari buruz dihardugunean, askotariko profilak daudela. Hori dela eta, azpimarratzekoa da, pertsona migratuen kasuan, arrazializatuak pairatzen duten zapalketa bikoitza, gure gizartean egiturazkoak diren sistema arrazistak, finean, arrazakeriak alderik alde gurutzatzen dituelako. Ezin uler liteke bestela pobrezia gorpuz sozial, herrialde edo munduko eskualde zehatzekin duen harreman zuzena (Jean Pierre 2017, 12).

Immanuel Wallersteinen soziologoak esana da arrazakeria dela lan indarra eta mozkin zein irabaziak modu desorekatuan banatzeko argudioa. Bere hitzetan, arrazakeriak enuntziatu ideologikoen multzoa du oinarri, praktika jarraituen multzo konbinatua, zeinaren ondorioa izan baita etniaren eta lan indarraren banaketaren arteko korrelazio sendoari eustea. Harreman horri lotuta, maiz baieztatu da ekonomikoki nahiz politikoki zapalduta daudenak kulturalki ere gutxiago direla (2006, 69).

Arrazakeriak, beraz, dimentsio praktikoa eta teorikoa ditu (Jean Pierre 2017, 2). Praktikan, hainbat indarkeria formen gorpuztea da eta hori modu askotan gauzatzen da, besteak beste: arbuioa, tolerantziarik eza, esplotazioa edo humiliazioa (Ibid.). Hortaz, migratuen bizi baldintzez ari garenean, ezin dugu pobrezia eta diskriminazioaz jardun, instituzioetatik hasi eta gizarteko eremu txikiak blaitzen dituen arrazakeria aipatu gabe.

Nicolas Jean Pierrek pobrezia etnokultural kontzeptua darabil (2017, 14). Bere hitzetan, pobrezia mota hori ezin da neurtu Garapenerako Nazio Batuen Programako Giza Garapenaren Indizearen (GGI) edo Giza Pobrezia Indizearen (GPI) arabera. Ikuspegi multidimentsionaletik jorratzen du kontzeptua eta lau eremu atxikitzen dizkio: lehena, baldintza materialei lotutako pobrezia; bigarrena, baldintza ekonomikoei dagokiena; hirugarrena, baldintza sozialei atxikitakoa; eta, laugarrena, printzipio eta balio soziokulturalen multzoari dagokiona (Jean Pierre 2017, 14).

Pertsona arrazializatu eta kolektibo etnikoekiko bortxa eta desberdinkerien amaraunaren erdian, hizkuntzak berebiziko garrantzia duela esan dezakegu. Horrela deskribatzen dute Cony Carranza eta Itziar Gandarias, aktibista feminista eta antiarrazistek, emakume migrante askok sufritzen duten egoera:

Bidaia ez da Europara iristearekin amaitzen. Zinez, emakume batzuek diotenez, bidaia ez da inoiz amaitzen. Beste hizkuntza bat, kultura bat, haren kodeak eta bizikidetzara-arauek ez ezagutzea, bakardadea, informaziorik eza edo familia-sareen urruntasuna, emakumeek eguneroko bizitzan dituzten oztopoetako batzuk dira.
(2018, 92)

Hizkuntza, izan ere, adierazpide kultural zinez garrantzitsua da. Eman diezaiegun bada begirada bat amaraun horretan korapilatzen diren hariei.

HIZKUNTZA, ETNIZITATEA ETA MIGRAZIOAK. HIZKUNTZA IDEOLOGIA ETA BOTERE HARREMANEN ERAGINA.

Hizkuntzari jendartetik begiratzen diogunean, jendartean duen funtzioaz eta lekuaz galdetzen dugunean, hizkuntza eta jendartearen arteko lotura joan-etorrikoa eta erabatekoa dela ikusiko dugu. Hizkuntza fenomeno, baldintza, egitura eta gertaera sozialekin harremanetan dago; are, horien guztien eragile, eraikitzaile eta haien objektu da aldi berean. Hizkuntzarekin jendartea eraikitzen da, hizkuntza jendartea eraikitzeko baliabide sozial bat da. Eta, aldi berean, jendartearen dinamikek, balioek eta egiturek ekintza linguistikoa baldintzatzen dute. (Agirre eta Eskisabel 2019, 37-38)

Hizkuntza ekintza soziala dela diogu (Alonso 2020, 199). Izan ere, mintzairaren bitartez sozializatzen gara, loturak eraiki, mundu ikuskera propioa sortu eta identitate sozialak interpretatzen ditugu. Taldean bilakatzen gara hiztun eta gehienetan praktika edo zeregin batzuei lotuta. Hizkuntz praktikak jendartearen ispilu dira eta testuinguru sozialaren ondorio (Agirre eta Eskisabel 2019). *Trikua esnatu da* liburuan azaltzen denez:

Hizkuntza aztertuz, jendartearen berri jasotzen dugu. Jendartearen egitura, arau, iruditeria, ideologia eta praktikei erreparatzen diegun aldiro hizkuntza bidera agertzen zaigu. Eta, aitzitik, jendarte edo komunitate baten eraikuntza prozesuan hizkuntzak berebiziko garrantzia du, komunitate horren balio, arau, egitura, iruditeria eta ideologia eraikitzen, eragiten, erreproduzitzen eta eraldatzen dituen baliabide bat delako. (2019, 38)

Genero aldagaiarekin esan ohi den bezala, hiztun eraikitzen edo egiten gara. Lengoiaren bidezko sozializazioa ez da, ordea, prozesu mekaniko determinatua, subjektuek eraldaketarako agentzia eta gaitasuna baitute. Hori dela eta, norbanakoaren, taldearen eta gizarte antolaketaren arteko harremanak eta eguneroko bizitzan gertatzen denak garrantzia berezia du. Horregatik, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak jarraipen eta al-daketa soziokulturalak ditu aztergai (Kasares 2015, 17). Bide horretan, guk subjektuei, sozializazioaren azpian dauden botere harremanei eta ideologiei erreparatzea dugu xede. Kasaresek (2015, 18) dioen eran, hizkuntza sozializazioa mementoko testuinguru zehatzari dagokio, hau da, mintzairari buruzko oharmena edo hizkuntzen gizarte banaketa bezalako faktoreen arabera da. Herritarrek mintzairaren inguruan dituzten ideiek jendearen hizkuntza jokamoldeei eragiten die.

Mintzaira ez da komunikazio tresna hutsa, kultura nortasunaren gordailu eta jarraitutasun historikoaren unitate ere bada (Vazquez 2020). Estatu nazioek beren aginteko lurraldeak hizkuntza bakarrekin lotzeko ahalegina egiten dute maiz, adibidez, Frantzia, Alemania edo Espainiak. Hizkuntza eta estatu nazioen arteko paralelismo horrek funtsezko arazo bat mahaigaineratzen du, munduko hizkuntza gehienak ez datozelako bat Estatu nazionalekin (Ibid.). Ideia horri jarraiki, merkatuan bezala, hizkuntza batzuk besteak baino balio handiagoa edo

txikiagoa dute eta testuinguruaren arabera dialekto, estilo eta hizkuntzek ez dute truke balio bera. *Habitus linguistikoa*⁴ eta hizkuntza merkatuaren arteko baturaren emaitza dira diskurtsoa eta hizkuntza adierazpena. Hizkuntza merkatua hizkuntza trukeen multzo gisa ulertzen du Pierre Bourdieuk (2000, 121), hizkuntza komunitate bateko kideek testuinguru sozial jakin batean sostengatzen dutena, eta, arau sistema publiko bat tarteko, eragileek zer esan behar duten eta nola esan behar duten zehazten duena. Bestela esanda, *zein hizkuntzatan, nork, "norekin, non, noiz eta zertarako egin erabakitzea sozialki baldintzatua dagoen "hautua" da"* (Agirre eta Eskisabel 2019, 38).

Lengoaiei aspektu sinbolikoari erreparatuz, "hizkuntzaren gaineko uste eta iruditeriak ez diote soilik hizkuntzari eragiten; hizkuntzaz uste dugun hori bera uste dugu hiztun eta hiztun komunitateaz, eta baita jendarteaz ere" (Agirre eta Eskisabel 2019, 38). Hizkuntzei esleitzen zaien balio sinbolikoak, leku, garai zein espazio bakoitzean gailentzen diren botere harreman eta zapalkuntza eta pribilegioen gurutzaketa interseksionalen ondorio direla esan dezakegu. Adibidez, *Trikua esnatu da* liburuan, generoa eta hizkuntza aldagaien arteko gurutzaketaz mintzo dira Agirre eta Eskisabel (2019). Euren esanetan, botereak era sotilean inskribatzen ditu gure gorputzetan zapalkuntzak, eta horrez gain, "gu geu geure gorputzetan bizi ditugun menderakuntza horien elikatzaile eta iraunarazle" bilakatzen gaitu maiz (Agirre eta Eskisabel 2019, 24).

Hizkuntza batean edo bestean jarduteak, hierarkia sozialean leku batean edo bestean kokatzen du hiztuna, bazterrera edo erdigunera, publikotasunera edo txokora bultzatzen dezake. Hiritartasuna eman edo kendu egin lezake, alegia, eskubide sozialak egikaritzeko bidea ireki edo ukatu (Agirre eta Eskisabel 2019, 39).

Besteak beste, desberdinkeria horiek hizkuntza ideologia zehatzek eta historikoki mamitu diren hierarkia arrazial eta kolonialek blaituta daudela dio Alonsok (2020, 200) eta, adibide moduan, diosku gizarteak ez dituela emakumeak edo arrazializatuak berdinean entzuten. Arraza edo etnia pertzepzioak tarteko, bereizkeriaz tratatzen direnei arrazializatu deritzegu. Alonsoren hitzetan, arrazializazioa ez da gauzatzen soilik fenotipo edo azal kolorearen ondorioz, janzkera zehatzek, nazionalitate edo etnizitateak eta hizkuntzak ere eragiten dute (Alonso 2020, 199-200). Lengoaiei buruzko iritziak, hizkuntza aldaera edo barietateak arrazializatu egiten dira, eta modu inplizituan gogorarazten dituzte ezaugarri arrazialak (Shuck 2006).

1979an Michael Silverstein (1979) hizkuntzalariak horrela definitu zuen hizkuntza ideologia kontzeptua:

Erabiltzaileek hizkuntzari buruz artikulatutako sinesmen multzo bat da, hizkuntzaren egitura edo erabilera hautemateko arrazionalizazio edo justifikazio gisa. Zer hizkuntza, zer hitz erabiltzen dituzten hizkuntza baten erabiltzaileek beren hizkuntzari buruzko sentimenduak adierazteko, definitzeko.

Hizkuntza ideologiak askotarikoak dira eta maiz beraien artean kontraesankorrak. Maria Juncalen esanetan, horien bitartez, pertsonen arteko botere harremanak islatzen dira, eta ideien mailan bakarrik daudela uste de-

4 Bourdieuren (2000) arabera, *Habitus linguistikoa* ez da esaldiak gramatikalki ondo osatzeko ahalmena izatea. Diskurtsoaren baldintza sozialak, berau baliatuko den eremu edo testuingurua aintzat hartu behar direla dio.

zakegun arren, emozioekin lotura estua dute (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022⁵). Hizkuntza eta emozioen arteko erlazio estuari lotuta, batzuetan hizkuntzen erabilera beldurra edo paralizatzea ikusten dira eta horien atzean ideologiek pisu handia izan dezakete (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022).

Ideologia horiek, besteak beste, maila publiko eta sozialean hedatutako aurreusteak dituzte oinarri. Hain zuzen, barneratuta ditugun usteen mapak gidatzen gaitu munduan, horien arabera bideratzen ditugu gure ekintzak (Arrieta 2010, 23). Aurreusteak, gainera, egiazkotzat hartzen ditugu askotan eta horregatik kontu izan behar da, bereziki, oinarri ahula duten usteekin (Arrieta 2010, 21). Egiazkotzat hartzeak kasu batzuetan horiek gorpuztea dakarrela esan dezakegu, uste horiek naturalizatu eta gure azaletan inskribatzea (Agirre eta Eskisabel 2019, 24). Gorpuzte hori, euskal hiztunen kasuan, orobat, subalternotasunean gertatu da edo gertatzen da (Agirre eta Eskisabel 2019, 34).

Euskaraz ari ginenean edo gaztelera ari ginenean besteek guran ikusten zutena —eta, finean, baita geuk ere— oso diferentea zela, euskaraz aritzeak une horretako balioztatze sozialerako galga zitzaizkigun ezaugarriak eransten zizkigula, hala nola, antimodernitatea, baserri giroa, ezjakintasuna, antigoalekoarekin lotura... Geure gorpuztasunean, geure buruaren hautematean, eragiteraino: esaterako, gaztelera gorputz jarrera tenteago, keinuera lotsagabeago, eta, azken batean, boteretsuago sentitzeko bide zitzaigun. Praktikan, boteretsuago izateko.
(Agirre eta Eskisabel 2019, 34-35)

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek darabilten naturalizazioaren kontzeptuak, beraz, harreman zuzena du hizkuntza ideologiaren eta botere harremanen aferarekin. Naturalizatzen dugun hori hizkuntzei buruz gailentzen den ideologia hegemoniko bilakatzen dela esan daiteke.

Hizkuntza ideologiak uneko egitura soziopolitiko edo gizartearen ispilu dira, baina, era berean, iraganeko diskurtso eta teoria hegemonikoen oihartzuna eragiten dute. Adibidez, hirurogei eta laurogeiko hamarkadetan, garai *nazional* edo *kolonialean* (testuinguruaren arabera), *estatua = nazioa = hizkuntza bakarra*, ideia zen nagusi eta kolonietan metropolietako hizkuntza inposatzen zen. Historia hurbileko erregimen linguistikoaren bitartez, Latinoamerikan komunitate indigenak ikusezin bilakatzen ziren eta Espainian Frankismo garaian gaztelera ez zen bestelako edozein hizkuntza erasotzen zen (Martin eta Pujolar 2020, 12). Atzerago joanda, Erdi Aro kristauan euskara hizkuntza barbaro eta pagano gisa definitu zen. Orduko iritzi edo sinesmenek gaur arteko bidea egin dute, eta oraindik bada, era gutxiesgarrian, barbaro, arkaiko edo zahar gisa irudikatu eta definitzen duenik. Aurreste horiek tarteko, zibilizazioaren eta aurrerabidearen izenean, euskaldunok behin eta berriro zanpatu eta burla egiteko politika existitu da (Azurmendi 1992, 30).

5 2022ko ekainaren 9an Udako Ikastaroen Fundazioak "Gazteen ahotsak: Hizkuntza-ideologiak eta kultur aniztasuna / Voces jóvenes: ideologías lingüísticas y multiculturalidad" izeneko workshop-a antolatu zuen. Bertan hainbat hizlarik hartu zuten parte, besteak beste: Jaime Altuna, Estibaliz Amorrortu, Joan Pujolar eta Fernando Ramallok. Workshop honetako edukia grabatuta dago baina bertan parte hartu zutenentzat bakarrik dago eskuragarri.

Galizian, esaterako, botereari atxikitako hegemoniak galizieraz aritzeak hiztuna basati eta atzerakoitzat definitzen du. Genero ikuspegi batetik, beraz, emakumetasunaren galera eragiten du (Reimóndez 2021, 76). Txanponaren beste aldean, hizkuntza hegemonikoei atxiki zaizkien balioak daude. Hizkuntza hegemonikoez aritzea botereaz jardutea da, eta berorren eraikuntzak aspektu materiala du, bestelako hizkuntzak diglosia edo desabantaila egoerara makurrarazten dituen (Reimóndez et al 2017, 74). Hizkuntza hegemonikoak botere hegemonikoen baitako dominazio sistemaren parte dira eta beste mekanismo batzuekin eragiten dute gizartean. Lehen hizkuntza eta generoa alderatu ditugu, bada, Maria Reimóndezek (2017, 74) "derrigorrezko elebakartasuna" eta "derrigorrezko heterosexualitatea" parekatzen ditu, biak botere heteropatriarkal eta kolonialari men egiteko mekanismo izendatuta. Hizkuntza hegemoniak eta derrigorrezko elebakartasunak zentroak eta periferiak sortzen ditu; hau da, botere harremanak elikatu eta desberdinkeria zein pribilegio sozialak sustatu (Reimóndez et al 2017, 75).

Hizkuntza hegemonikoak kapitalismoa eta kontsumoari hertsiki lotuta daude, eta, horregatik, hizkuntza ez hegemonikoetan mintzo diren emakumeen aurrean, identitate "aurrerakoiago", "feministago" eta "irekiago" gisa aurkezten dira. Galizian errealitate hori oso agerikoa dela dio (Reimóndez 2021). Ildo beretik, euskara ere hizkuntza ez hegemonikoa izaki, bazter uztera behartzen den hizkuntza da, mendeko egoerara makurrarazia (Agirre eta Eskisabel 2017, 51).

Galiziako mugimendu feminista, sorreratik, nagusiki, galizieraz jardun dela dio, eta emakumeen eskubideak hizkuntza eskubideei lotuta ulertzen dituztela, horiek naturari, lurraldeari, aniztasun afektibo sexualari eta bioaniztasunari buruzko ezagutzari konektatzeko aukera ematen dietelako (Ibid.).

XXI. mendean, euskarari buruzko bestelako aurreiritzi batzuk gailentzen dira, besteak beste, euskara zaila dela (Uranga eta Aierdi 2021, 74) edo plastizitatez ez duela dioen ideia, arazoa hizkuntzaren berezotasunean balego bezala (Agirre eta Eskisabel 2019, 33). Hizkuntza subalternoei egotzitako desgaitasunek, naturalizazioarekin ez ezik, hizkuntza horiekiko prestigio ezarekin eta zapalkuntzarekin ere lotura zuzena dute (Ibid.).

Juan Carlos Moreno (2014) linguistaren esanetan, hizkuntza denek dute ikasteko garaian konplexutasun edo sinpletasuna, abiapuntua kontuan izanda. Esan dugun bezala, ordea, euskara zaila dela pentsatu ohi da, eta kontrara, gaztelarak 5 bokal dituen erraz ikas daitekeen hizkuntza dela esaten da. Esanak esan, euskarak ere bokal kopuru berberak ditu eta horrek ez du ahalbidetu erraz ikasteko hizkuntza gisa definitzea (Ibid.). Estitxu Garaik "euskarak" biltzen dituen balioak aztertu ditu. Euskarari dagokionez, jendartean, hizkuntza polita baina zaila dela esaten dela dio eta, bere hitzetan, zailtasun ideologikoa aitzakia izan daiteke hiztun berriak bereganatzeko. Aipatu digu hizkuntza misizitismo moduko batekin lotzen dela eta horrek eguneroko praktikasunetik aldentzen duela. Azken hamarkadetan euskara baserriko eta eskolako gaiak lantzeko hizkuntza gisa definitu izan dela dio; aldiz, ez omen zaio aitortzen iraintzeko, txisteak egiteko, haserrea adierazteko balioa. Iruditegi horrek eguneroko funtzionaltasunetik urrunduta eta hizkuntza ez hegemonikoak funtzio sinbolikora makurtu eta hiztunak uxatzeko arriskua dakarrela diosku.

Jaime Altunak (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022), berriz, Euskal Herrian euskararen inguruko ideologiei dagokionez, euskaraz hitz egitearen kultur ardura badela dio. Eskola eta familian esaten den "euskaraz hitz

egin” esaldiak laburbilduko luke bere ustez ideia hori. Euskara hizkuntza zaugarritzat eta altxortzat hartzen da era berean (Ibid.). Horrez gain, Fernando Ramallok, identitateari lotuta, nortasun kolektiboa edo euskal kolektiboari lotuta, hiztun erradikalaren (Ibid.) figura ere agerikoa dela diosku.

Euskarari hertsiki lotuta ageri zaigu euskalduntasun kontzeptua. Arestian esan dugun bezala, hizkuntza eta identitatea elkar korapilatzen diren aspektuak baitira. Euskalduntasuna ulertzeko moduei dagokienez ere, Penelope Harveyk, *Lenguaje y relaciones de poder* testuan, hizkuntza eta boterea elkarri estu lotuta daudela frogatzen digu. Bere hitzetan, hizkuntzei askotariko esanahiak atxikitzen zaizkie, eta esanahi horiek naturalizatu egiten ditugu. Horrela, gurean, hizkuntza bakoitzari lotutako esanahi eta aurreiritzi multzo batzuk gailentzen dira eta, horien arabera, hizkuntza hierarkiak antolatu (Harvey 1987, 109). Ikusiko dugunez, Euskal Herrian, espainiera edo frantsesa eta euskararen artean ez ezik, beste hizkuntzen artean ere asko dira botere harremanak eta hierarkiak. Zantzu orokor eta amankomunak identifikatu ditzakegun arren, tokian-tokian, desberdin eragiten dute. Lengoaien arteko botere harremanak ere nabarmenak dira eta horren erakusle dira hizkuntza hegemoniko eta ez hegemonikoen arteko arrakala eta aldeak. Hizkuntza ideologiek zein politikek, praktikan, botere harremanak errazten dituzte. Horren adierazle dira, adibidez, *Jatorri atzerritarreko hizkuntzak, hizkuntza-bizipenak eta jarrerak Gipuzkoan* izeneko ikerlanean ondorioztatutakoak. Azaltzen dutenez, hizkuntza ez hegemonikoa duten ikerketako informatzaile gehienek onartu dute Euskal Herrian jatorrizko hizkuntza nagusiaren aldeko hautua egin dutela (Uranga eta Aierdi 2021, 69). Era berean, hizkuntza minorizatua duten zenbaitek euskara euren hizkuntzarekin parekatu eta hurbilpen sentimendua adierazten dute (Ibid.).

Orokorrean, hizkuntzen inguruan gailentzen diren beste ideia batzuk ere badaude, besteak beste, askotariko hizkuntzek elkarrengandik bereizten gaituztela, eta hizkuntza hegemonikoek, ostera, hurbildu edo elkartu. Reimóndezek (2021) adibide gisa jartzen du Espainiar estatua, espainiera, espainiar guztiak batzen dituen hizkuntza gisa aldarrikatzen duelako.

Hizkuntzen mailaketaz ari garenean, datuak agerikoak dira. Izan ere, gure herriko jatorri askotariko herritarrek diote gaztelania ezinbesteko dutela komunikazio orokorrerako, integrazio ekonomiko eta sozialerako eta, batez ere, legeari lotuta, estatuko erakunde ofizialetan tramiteak egin eta harremanak izateko, halaber beharrezko hizkuntza dela deritzote. Horrez gain, nazioartean duen balio handia nabarmentzen dute (Uranga eta Aierdi 2021, 74)

Mintzairen hedapena prozesu historiko sozial eta kulturek ahalbidetzen dutela dio Juan Carlos Morenok eta espainolaren hedapena hizkuntza indigena eta minorizatuen bazterkeria sustatuz erdietsi dela (Moreno 2014). Hizkuntza ez hegemonikoen egoera, fase historiko baten ondorio da, zehazki, ekoizpen modu hegemonikoak, hau da, kapitalismoaren hedapenak sustatutakoa (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022). Ikuspegi materialista batetik, egungo fasea egoera iraultzera bideratu behar da. Horretarako, haustura eta talka ezinbestekoak direla dio Ramallok, orain arteko hizkuntza politikek ez baitute lortu hizkuntza ez hegemonikoak desminorizatzea. Hitztun berriak desagertzen diren unean lortuko dugu, bere aburuz, hizkuntza subalternoen errealitatea iraultzea (Ibid.). Azkenik, hizkuntza ideologia kaltegarri eta oztopatzaileak gainditzeko bizipen eta esperientziak partekatzea eta horien inguruan hausnartzea lagungarri izan daitekeela dio Estibalitz Amorrortuk (UIK - Udako Ikastaroak

Fundazioa 2022). Barne lanketa ez ezik, ezinbestekoak dira motibazioa, gogoeta soziolinguistiko kritikoa edo kontzientzia hartzea edota ekintzaren beharra. Azken ideia hori, Ramalloren hiztun erradikalarekin pareka dezakegu. Raimóndezek berriz, hizkuntzaren gaia erdigunera ekarri eta teoria interseksionalak praktikara eramateko beharra aldarrikatzen du, bere hitzetan, horrek espazio bioanitzak sortu eta ondokoen aniztasuna, historiak, testuinguru soziokultural konplexuak nondik datozen ulertu, duten balioa eman eta horietatik ikasteko aukera ematen digutelako (Raimóndez 2021).

ERALDAKETARAKO ETA ESKU-HARTZEKO ZENBAIT GAKO

Kontzientziak, hautuak, ahalduntzeak eta boteretzeak euskaldun izatetik euskaltzale izatera garamatzate. (Agirre eta Eskisabel 2019, 123)

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza, testuinguruak zeharo baldintzatzen dituelako gure diskurtso eta ohiturak. Hizkuntza gutxituen kasuan, zailtasunak bestelakoak edo ugariagoak direla baieztatu dezakegu. Arestian esan dugun gisan, taldean bilakatzen gara hiztun. Joan Pujolarren aburuz, hizketa modua ez du norberak hautatzen. Hitzuna *hartzaile errefraktarioa*⁶ dela dio, inguruko hizketa moldea errefraktatzen duena. Norbanakoen hizketa bizi dugun ekosistema linguistikoaren ikuspegi mediatizatuaren adierazlea da, beraz (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022).

Hiztunen komunikazio esperientzia globalei lotuta, gizaldi honek, eta, bereziki, belaunaldi berriek, testuinguru espezifiko bizi dugula dio Pujolarrek. Esaterako, digitalizazioak gure bizimodua eta *ekologia komunikatiboa*⁷ osoki eraldatu dituela.

Espazio publikoko komunikazioa enpresa pribatuek kontrolatzen dute, eta estatuek zein herritarrek ez dugu horien inguruko erabakimen edo kontrolik. Gainera, kultur produkzio eta esparru digitalean hizkuntza hegemonikoek abantaila eta lehentasuna dute. Ondorioz, euskara bezalako hizkuntza ez hegemonikoek erreferentzia, espazioa eta presentzia lortzea askoz zailagoa dute. Esparru digitalen gure esperientzia komunikatibo globalaren parte zabala osatzen dute eta denborak aurrera egin ahala, gehiago. Zoritxarrez, egungo egoeran, horietan eragiteko aukera eskasa dugu, ez baitugu baliabide digitalen gaineko kontrolik (Ibid.).

Hori horrela, sorkuntza eta kultur espazio propioak garatzeak hizkuntzei arnasa emateko eta eredu, iruditegi eta hizkuntza praktika berriak sustatzeko aukera eskaini diezaguke (Ibid.). Era horretan, bestelako kontsumo ereduak sustatzeaz gain, pertsona, herritar edo komunitateei protagonismoa eman diezaiekegu, hizkuntza praktikak eraldatzeko tresna propioak garatzeko aukera emanda. Lanketa horretan, garrantzia izango du subjektu edo kolektiboen identitate eta kultura aintzat hartzeak.

Horregatik, gizabanako bakoitza bere hizketaren jabe balitz bezala tratatzeak eraginkortasun mugatua izan dezake. Hizkuntza esperientziak eraldatze bidean jartzeko, hiztunen komunikazio esperientzia globalak hartu behar ditugu kontuan eta, horretarako, ezinbestekoa da testuinguru sozialean, komunitate, talde zein sareei erreparatzea eta horiei zuzendutako estrategia edo hizkuntza politikak hausnartzea (Ibid.).

⁶ Ingurutik jasotzen duena, norabide zehatz batean kanpora islatzen edo igortzen duena. Jaso, barneratu eta bidali, igorri egiten ditu.

⁷ Lurralde batean sakabanatuta dagoen gizarte sistema baten barruan komunikazio jarduera desberdinen artean dauden harreman eta elkarreragina aztertzen duen zientzia da komunikazioaren ekologia. Komunikabideen, hedatzen dituzten mezuen, horien arteko harremanen eta publikoekiko eta gizartearekiko harremanen estatistika zientzia bat da, eta aztertzen du bai agentziek, bai gizabanakoek, nola erabiltzen dituzten mezu batzuk beste batzuk baino gehiago une jakin batean, eta laburbilduz, nola mezu batzuk besteen gaintik dauden, eta berez eboluziozkoa eta aldakorra den eremu baten balioak aldatzen dituzten. (Costa, 2011)

Taldeari zuzentzeak ez du esan nahi banakoek beren hizkuntza ohiturak aldatzeko gaitasunik edo agentziarik ez dutenik. Beti dago erabakitzeko espazio bat. Hiztun subjektuek ez dute soilik islatzen, errefraktatu ere egiten dute; ahotsak hautatzen dituzte. Agentzia esparru horretan eragin daiteke, diskurtsoen jabeakuntzan eta hizkuntza ekosistema orokorrean, adibidez (Ibid.).

Hizkuntzen erabilerari lotuta bi kategoria bereizten ditu Pujolarrek, identitarioa eta testuinguruari atxikitakoa (Ibid.). Elkarri eragiten dioten kategoriak dira biak, eta, era berean, testuinguruan indarrean dauden aurretiazko arauak baldintzatzen dituzte. Alderdi identitarioari dagokionez, irudikatu daiteke norbanakoek barneratutako hizkuntza ohitura zehatzekin gorpuzten dela identitate propioa. Hizkuntzari lotutako identitatea, hizketa ingurune eta moduari erabat lotzen zaiona, eraldatzea nekeza dela esan dugu. Hori ulertzen lagun gaitzake naturalizazioaren ideiak.

Azpiratutako norbanako eta jende taldeei sinetsarazten zaie badituztela ezaugarri batzuk beren berezkotasuna, natura definitzen dutenak. Halaber, sinetsarazten zaie ezaugarri horiek dituztenez praktika batzuetarako daudela gaituta eta, beraz, beste batzuetarako desgaituta. (Agirre eta Eskisabel 2019, 24)

Horregatik, performatibitatea zailtasunaren ideia zurrunetik askatu eta malgutasun handiagoa eskaini diezaguen erreminta da. Antzerkiak, jolas sinbolikoak performatibitateak ezarritako identitateetatik askatuta hizkuntzarekin jostatu eta esperimentatzeko parada eskaintzen digu (UIK - Udako Ikastaroak Fundazioa 2022). Horrela sorkuntza eta fikzioari ateak irekitzen dizkiogu eta indarrean dauden edo barneratuta ditugun hizkuntza ohituretatik irteteko zirrikitua izan daitezke.

Hizkuntza gutxituen egoerari eta hiztun berriei buruz ikertu du Ramallok (Ibid.) eta, kontzeptu askoren artean, hiztun erradikalaz mintzo zaigu. Hiztun erradikalek beharrezkoa dute kontzientziazioa. Ahal duten espazio guztietan hizkuntza gutxitua bere egiten dutenak dira. Euskaraz euskalakari kontzeptuarekin ere lotu ahalko genuke. Hurbileko hizkuntzetan, (katalana, galegoa eta espainiera), hiztun erradikala izatea samurragoa dela diosku, eta, era berean, euskara ulertzea zailagoa denez, ahalegin handiagoa eskatzen duela (Ibid.).

Krisi soziolinguistikoaz mintzo da Ramallo (Ibid.), eta berau gainditzeko, lehenik gainbehera eragin duten faktoreak zerrendatu eta ostean proposamen zehatzak planteatzen ditu. Hiztun berriak egoteko, kontsentsuaz gain, talka edo gatazka ere beharrezkoa dela dio. Hiztun berrien profil desberdinak zerrendatzen ditu eta dio hizkuntza ohiturak eraldatzeko erradikal eta potentzialak behar ditugula (Ibid.).

Kontzientzia eta gatazkaz gain, aliantza hizkuntza subalternoen aritzen diren herritarrak ahalduntzeko eta indartzeko gako garrantzitsua dela esan dezakegu, mendebaldeko kultura europarreko hiztunoi, bizio kolonialak saihesten, begirada zabaltzen eta deszentratzen lagun diezagukeelako (Reimóndez et al 2017, 79). Hori dela eta, garrantzitsua deritzogu aliantza horiek ikuspegi feminista eta dekolonialetik sustatzea.

Oro har, teoria transfeminista eta dekolonialek hizkuntza aspektu interseksionaletik jorrazeko parada eskaintzen digute, eta epistemologia europar zuri hegemonikoetatik harago begiratu eta hausnartzeko aukera ere bai. Hizkuntza ideologia hegemonikoen muinean botere harremanak badira, desoreka horiek iraultzean dago gakoa, desboteretze eta ahalduntze nahiz boteretze ariketetan. Hizkuntzari interseksionalitatearen talaiatik erreparatzen badiogu, alde batetik, kontzientzia piztu, ahaldundu eta boteretzeko, edota desboteretu eta pribilegioak ezbaian jartzeko parada eskainiko digu; bestalde, erresistentzia eraikitzekeo lubakiak non dauden eta aurrera begira jorrazu beharreko gakoak zein diren identifikatzen lagundu diezaguke.

— METODOLOGIA

Ikerlan hau 2022ko maiatzetik 2023ko urtarrila bitarte egin dugu. Baliatu dugun metodologia kualitatiboa izan da eta elkarrizketa sakonak izan ditu oinarri. Atarikoan esan dugun bezala, Soziolinguistika klusterrak argitaratu berri duen ikerketa kuantitatiboaren (Elgoibarko hizkuntza-aniztasunaren mapa) osagarri izan nahi du.

Landa lanean murgildu aurretik, tankerako ikerketak begiratu eta hizkuntza antropologian edo bestelako ikerketetan lanean dabiltzan 3 pertsonekin bildu gara. Horrela findu ditugu ikerketa aurrera eramateko hainbat gako, metodologia teknikak eta lagina, besteak beste. Horrez gain, hizkuntzalaritzan eta migrazioen alorrean lanean dabiltzan Elgoibarko beste hiru lagunekin ere bildu gara, bertako errealitatera hurbildu eta harremanak errazteko helburuarekin.

Guztira Elgoibarren bizi diren 18 eta 60 urte bitarteko jatorri askotariko 12 pertsona elkarrizketatu ditugu; horietako batzuk, kafe baten bueltan eta, beste asko, herritik oinez, paseoan. Etnografia ibiliz egiteak, informatzaileak bere ingurunea nola hautematen duen eta eguneroko praktikak nola garatzen dituen ezagutzeko aukera ematen digu. Modu interaktibo horrek, gainera, *hainbat esanahi eta interpretazio geruza biltzen dituen prozesua ahalbidetzen du eta esperientziaren konplexutasunaren ulermena aberasten du* (Urquijo, 2019).

Banakako elkarrizketak gertutasunez eta era intimoan gauzatu ditugu, eta hori nabaritu da sortu diren harremanetan, elkarrizketa bakoitzeko informazio fluxu partikularra jaso baitugu, baita gidoitik kanpoko aspektu batzuk ere (Valles, 1999). Ahal izan dugunetan, espazio bare eta goxoetan egin ditugu, patxadaz eta denboraz. Eranskinetan atxikita dagoen gidoia lagun izan arren, puntu batetik bestera salto egin eta gaiak era malguan jorratu ditugu. Elkarrizketatuak hautatzerako orduan, hiru aspektu hartu ditugu kontuan: jatorria, adina eta generoa. Horrez gain, sorlekuan hitz egiten zituzten hizkuntza eta gaur egun Elgoibarren bizitzen daudela hitz egiten dituztenei buruzko oharrek ere hartu ditugu. Azkenik, aipatu nahi genuke, protagonista denak izen anonimoekin ageri direla ikerlanean. Ezizenak hautatzeko aukera eman diegu elkarrizketatuei. Horietako asko beraiek hautatu dituzte, eta beste batzuk guk geuk zehaztu ditugu. Hona hemen elkarrizketatu bakoitzarekin osatu dugun taula:

DATU BIOGRAFIKOAK			HIZKUNTZA BIOGRAFIA		
ELKARRI-ZKETA-TUAK	SE-XUA	ADI-NA	JATORRIA	SORLEKUAN	ELGOIBARREN EUSKAL HERRIAN
Cian	Gz.	44	Irlanda	Ingelesa	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk) / Gaelera (hitz gutxi batzuk)
Marco	Gz.	46	Italia	Italiera	Gaztelania / Ingelesa / Euskara
Patxi	Gz.	28	Albania	Albaniera	Gaztelania / Ingelesa
Anne	Em.	44	Errumania	Errumaniera	Gaztelania / Ingelesa / Italiera
Ana	Em.	38	Maroko	Arabiera / Berberera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Fátima	Em.	22	Maroko	Arabiera / Berberera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Sekou	Gz.	25	Mali	Bambara / Soninke / Wolof (Maila apalagoa)	Gaztelania (Maila apalagoa) / Frantsesa (Maila apalagoa)
Angie	Em.	32	Nikaragua	Gaztelania	Gaztelania
Aroa	Em.	46	Dominikar Errepublikak	Gaztelania	Gaztelania
Lekuona	Gz.	58	Argentina	Gaztelania	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Ling	Em.	40	Txina	Mandarin txinera / Kantonera	Gaztelania
Shahid	Gz.	34	Pakistan	Urdua / Punjabera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)

Iturria: geuk egina

Elkarrizketak egiteko hautagaiak zehazterakoan, genero, jatorri eta adin tarteari dagokionez oreka aurkitzen saiatu gara, baina ez dugu guztiz lortu. Sei emakume eta sei gizon elkarrizketatu ditugu, baina ez dugu lortu ez bitarrik elkarrizketatzerik. Jatorriari dagokionez, Europa, Afrika, Amerika eta Asiako herritarrak elkarrizketatu ditugu: lau europar, hiru amerikar, hiru afrikar eta bi asiar. Elkarrizketak aurrera egin ahala, puzzle orekatua osatzea kostatu zaigu. Adin tarteari dagokionez, jatorri atzerritarreko biztanleen erdiak baino gehiagok 25 eta 64 urte artean dituzte (Uranga, 2022). Hori dela eta, bereziki kostatu zaigu, 18 eta 29 urte arteko pertsonak topatzea.

Horiez gain, bestelako zailtasun metodologikoak ere izan ditugu. Elkarrizketak egitean egindako galdera ulertzen ez zutelako batzuetan, galderaren zentzua ulertzen ez zutelako besteetan. Azkenik, grabatutako elkarrizketa bat izorratu zaigu hogeigarren minutuan eta, kasu horretan, errepikatu egin behar izan ditugu hainbat galdera.

— EMAITZEN ANALISIA

AURKEZPENAK

Analisian murgildu aurretik, ikerlan honen muina izan diren elkarrizketatutako hamabi lagunen aurkezpenak egingo ditugu. Horietan, anonimoki bada ere, nortzuk diren, zein zaletasun dituzten eta Elgoibarrera zergatik eta nola iritsi diren azalduko dugu. Nahiz eta aurkezpenean ez ageri, Fátimaren elkarrizketan itzulpen lanak egin zituen lagunaren hitzak ere txertatu ditugu analisisian. Malu ezizenez izendatu dugu, eta Fátima bezala marokoarra da eta Elgoibarren bizi da.

Cian (Irlanda)

Cianek berrogeita lau urte ditu eta urteak daramatza Elgoibarren bizitzen. Ostalaritzan egiten du lan. Duela hogeita bi urte Erasmus egiten zebilen neska bat ezagutu zuen Irlandan. Hiru bat aldiz elkartu ziren han eta neskak Euskal herrira bisitan joateko gonbita egin zion. Astebete pasatzera etorri zen lehenik, baina, egonaldia luzatzen hasi eta bertan geratzea erabaki zuen. Euskal Herrian ingeleseko klaseak ematen hasi zen lanean. Eguna lanean eta sofán botata pasatzen duela esan digu. Bidaiatzea gustatzen zaio, gauza lokalak ezagutzea, baita Networking-a praktikatzea ere.

Marco (Italia)

Marco italiarra da, berrogeita bost urte ditu eta bederatzi urte daramatza Euskal Herrian bizitzen. 2013an etorri zen familiakoekin Elgoibarrera, emaztea Elgoibarkoa baitu, eta, egun, bertan baserri-landetxe batean bizi dira. Hantxe egiten du lan logelak turistei eskaintzen. Natura eta mendizalea da, asko gustatzen zaio mendi bueltak ematea eta denbora librean duenean horixe egiten du. Nobelak irakurtzea ere maite du.

Elgoibarren Baso biziak izeneko elkarte batean parte hartzen du eta horretan denbora dezente pasatzen duela esan digu. Elkarteak bertako basoa berreskuratzea du xede: haritzak, pagoak eta abar. Dirua bildu, lursail batzuk erosi eta bertan landatu edo bere kasa basoa sortu dadin utzi nahi dute.

Bi Seme-alaba ditu eta, goizetan, sei eta erdiak aldera, esnatu eta elkarrekin gosaltzen dute. Jarraian ikastolara eramaten ditu. Ikastolatik landetxera itzuli eta, bezeroak badaude, horiei gosaria prestatu, garbiketa egin eta afariak prestatzen ditu. Bezerorik ez duenean, ostera, etxeko mantentze lanak egiten aritzen da: baratzea, animaliak eta abar.

Patxi (Albania)

Patxi Albaniakoa da, hogeita zortzi urte ditu eta Elgoibarren bizi da. Zaletasun asko dituela esan digu, adibidez, musika, festa, lagunekin ateratzea, bidaiatzea, jendea eta kulturak ezagutzea gustatzen zaiou. Momentu honetan lanik gabe dago, baina astelehenean hasiko da lanean. Sukaldaria da eta bost urte eta erdiz Galizian eta urte erdiz Zumaian aritu da sukaldari lanetan. Orain lanbidez aldatu du eta metalgintzan tornu zein fresatzeko makinekin hasiko da lanean. Sukaldaritzaz ez dela baloratzen uste du.

Albanian sukaldaritzaz ikasketak amaitu zituen, baina ez zeukan lan onik eta ez zuten ondo ordaintzen. Hogeitaz urterekin, Galizian bizi zen lehengusu batek bereganatu lanera joateko gonbita egin zion. Une hartan ez zuen paperik, baina, lehengusuak lan kontratu bat eskuratu zion. Euskal Herrian ere familia du, eta, Galiziako lanarekin aspertu zenean, hona etortzea erabaki zuen. Horrela, hogeita bost urterekin Azkoitira iritsi zen. Garai txarra izan zela kontatu digu, pandemia hasi zelako eta lana gutxitu zelako. Aldi baterako lanak egiten aritu zen eta horrela ibili da gaur arte.

Anne (Errumania)

Annek berrogeita lau urte ditu eta errumaniarra da. 2008ko urri amaieran iritsi zen Gipuzkoara, senarraren ondoren, Errumanian zitu zuten hainbat zor kitatzeko xedez. Beasainera joan ziren lehenik bizitzera, eta han egon ziren 2009ko uztailean arte. Etxe batean lanean hastear zela, haurdun gelditu zen. Aurrez, haurdunaldiekin arazoak izan zituen. Haurdun zela Errumaniara joan ziren oportetara Gabonetan eta senarrak han geratu nahi zuela esan zion. Berak, ostera, nahiago zuen Gipuzkoara itzuli eta bueltan etorri ziren. Handik aurrera, Elgoibarren bizi dira haurra, senarra eta hirurak. Ile apainketa ikasketak ditu eginda, baina gaur egun garbiketara enpresa batean dabil lanean. Herritik eta errutinatik atera eta planak egitea, kanpoan jatea eta disfrutatzea gustatzen zaiola esan digu. Gaur egun Elgoibarko Lila emakumeen etxean parte hartzen du.

Ana (Maroko)

Ana marokoarra da, hogeita hemezortzi urte ditu eta hogeitaz urte daramatza bere jaioterritik kanpo. Hemezortzi urterekin guraso eta anai-arrebekin Andaluziara bizitzera joan zen. Hogeitaz sei urterekin, Malagan, kontratu gabe lanean egon zen barneko etxe-langile moduan. Handik, lehenik Algecirasera eta gero Elgoibarrera mugitu zen. Bere ahizpa Elgoibarren bizi zen eta horregatik etorri zen

hona. Ahizpak lana izango zuela esan zion eta Algecirasetik zuzenean etorri zen. Hamabost egunetan lana aurkitu zuen. 2015ean senarra iritsi zen Elgoibarrera. Dagoeneko bederatzi urte egin ditu Elgoibarren bizitzen. Une honetan senarra eta seme alabez gain, ez du beste familiakiderik herrian, baina lagunak asko. Parte hartu duen hainbat ikastaroetan ezagutu ditu lagun horietako ugari.

Hiru haurren ama da, zaharrenak hamahiru urte ditu, bost urte tartekoak eta hamaika hilabete txikiak. Senarra Elgoibarren bizi da berarekin, igeltsero da eta lan bila dabil. Anak, berriz, Loreak elkartean parte hartzen du aktibitate desberdinetan: joskintzan eta, eskulanak txikitatik egin dituenek, baita haurrentzako jolasak egiten ere.

Fátima (Maroko)

Fátimak hogeita bi urte ditu, marokoarra da eta bi urteko seme bat du. Marokon fisikako batxilergoa ikasi zuen. Horri lotuta, fisika, kimika eta matematikak asko gustatzen zaizkiola esan digu. Bere senarra Elgoibarren bizi zen gaztetatik. Marokon ezkondu ziren eta bera ere senarrarekin Euskal Herrira etorri zen, Elgoibarrera, zuzenean. Sukaldatzea gustatzen zaio, baita hizkuntzak ikastea ere. Egunerokoan, semeaz arduratzen da, ikastolara eraman eta ekartzeaz eta haren zaintzaz, eta etxean egoten dela esan digu. Horrez gain, Zabaltzen⁸ elkartean parte hartzen du.

Une honetan gaztelera ikasten ari da eta elkarrizketa baliatu nahi izan du gaztelera praktikatzeko. Malu lagunak lagundu dio elkarrizketan itzulpen lanak egiten eta bere hitzak ere jaso ditugu ikerketa honetan.

Sekou (Mali)

Malikoa da eta hogeita bost urte ditu. Hamabi urterekin pateraz iritsi zen Espainiara. Zazpi egun egin zituen pateran bidaiari eta bidaiari oso bide gogorra izan zela esan digu. Itsasoa zeharkatu aurretik, Malitik Senegalera eta handik Marokora joan zen. Marokotik abiatuta Kanariar uharteetara iritsi zen. Orduetik, han eta hemen ibili da eta herri ugari ezagutu ditu, horien artean: Cádiz, Sevilla, Kordoba, Madril, Gasteiz eta Arrasate. 2021eko urtarrilean iritsi zen Elgoibarrera. Alde egin zuenetik hamahiru urte igaro dira eta ezin izan du Malira bisitan itzuli. Bere herrialdean arazo eta gerra asko daudela esan digu, eta horregatik alde egin

8 Zabaltzen-Sartu erakundea, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Gizartean desabantailan dauden pertsonen laneratzeko eta gizarteratzeko erraztasunak ematea da erakunde honen helburua, betiere, beraiek hala eskatzen badute. Horretarako, funtsezkoa da bai pertsonekin lan egitea, baita inguruarekin lan egitea ere, gizarte eta lurralde inklusiboak eraikitze aldera. Elkarteak, Elgoibar, Berriz, Durango eta Amorebieta Etxanon ditu bulegoak.

zuela handik. Hobeto bizitzeko etorri zen hona, baina hemengo bizitza ez dela erraza onartu digu. Zein zaletasun dituen galdetuta, futbola gustatzen zaiola esan digu, eta aurrera begira bizi ona duela amets.

Europara etorri zenetik arazo asko izan dituela kontatu digu eta oso bizimodu gogorrari egin behar izan diola aurre. Egun psikologoarekin lantzen dabilela aipatu digu, baita hark asko lagundu diola ere.

Angie (Nikaragua)

Angie Nikaraguakoa da eta hogeita hamabi urte ditu. Duela bederatzi urte iritsi zen Euskal Herrira behar ekonomikoak bultzatuta. Nikaraguan oso pobreak zirela esan digu, pobrezia handia dagoela bertan. Zuzenean iritsi zen Elgoibarrera. Euskal Herrira iritsi eta hilabetera ohartu zen haurdun zegoela. Beldurgarria izan zen, zaila... inork ez zion lanik eman nahi. Caritasekoek eta Loreak⁹ elkartekoek lagundu zioten hasiera horretan. Bi Seme-alaba dauzka, bederatzi eta hiru urtekoak. Iritsi berritan, haurdun egonda ez zuen lanik lortu, baina laguntza bat eskuratu zuen eta horrekin atera zen aurrera. Egun Nikaragutatik iritsi berri den ilobarekin eta bere bi seme alabekin bizi da pisu batean. Bere egunerokoa hauxe da: goizean haurrak eskolara eramanez, etxera etorri eta aukera duenean, kurtsoak egin. Arratsaldeetan haurrak jaso eta parkera eramaten ditu, edo ludotekara. Dantza egitea maite du. Hemen kurtsoen bat egin nahi luke, lanbide bat izan eta lana aurkitzeko. Joskintza ikastaroetan parte hartu izan du, eta, orain, ordenagailuko programak nola erabili ikasten ari da. Nikaraguara joatea gustatuko litzaioke, familia bisitatzera.

Aroa (Dominikar Errepublika)

Aroa jatorriz Santo Domingokoa da, (Dominikar errepublika) berrogeita sei urte ditu eta bost urteko haur bat du. Senarrarekin zoriontsu ezkondua dagoela esan digu. 28 urterekin Madrilera iritsi zen lehenik, bertan bizi den izeba baten senarrak etxeko langile gisa kontratu bat egin ziolako eta bere ahizpa ere bertan bizi zelako. Lau urte egin zituen bertan, eta, gero, lagun batek animatuta Elgoibarrera joan zen lan bila. Iritsi eta hurrengo egunean lan elkarrizketa bat izan zuen. Egun horretan bertan hasi zen tabernan lanean eta dagoeneko hamalau urte egin ditu. Haurra eta lana tarteko, aisialdirako denborarik ez duela esan digu. Baina, zaletasunei buruz

⁹ Loreak emakume migratzaileen elkarte bat da. Kulturartekotasuna sustatzea du xede, eta honako helburuekin egiten du lan: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, bizi diren komunitateko baliabideen berri izan eta erabiltzen ikastea, egunerokotasunean erabili ahal izateko gaitasun pertsonalak garatzea, bizi diren komunitatean parte hartzea, emakumeen ahaldunderako teknika eta prozesuak sustatzea, lege-aholkularitza jasotzeko bitartekoak jartzea eta giza eskubi-deen aldarrikapena eta prestakuntza eragitea (alfabetizazioa, teknologia berriak, e.a.).

galdetuta, herrialdean beisbolera eta boleibolera jolastea maite zuela kontatu digu eta aisialdirako denbora izanez gero kirola egitea gustatuko litzaiokeela.

Lekuona (Argentina)

Lekuonak berrogeita hamazortzi urte ditu, Argentinarra da, Pampako landa eremuko baserri batean jaioa. Bere aitona Antzuolakoa zen, eta, familia, Eibar, Bergara eta ingurukoa. Bere lau aitona-amonak etorkinak ziren. Koskortutakoan, aitaginarrebarekin egin zuen lan fabrian eta hogei urterekin guraso zen. Orain, Argentinan bizi du alaba. 2003ko ekainean hiru hilabete pasatzera etorri zen Euskal Herrira. Iritsi eta hamabost egunera itzulerako bidaia txartela apurtu eta Euskal Herrian bizitzen gelditzea erabaki zuela kontatu digu. Ostiral batean iritsi zen eta astelehenean jada lanean ari zen Zarauzko taberna batean. Hiru hilabete egin zituen bertan. Ondoren, Belaustegira joan zen oportretan zegoen langile bat ordeztara eta lana eskaini zioten. Elgoibarren etxebizitza zeukan (senideena) eta, horregatik, han geratzea erabaki zuen. Belaustegin bost urtetan egin zuen lan ostalaritzan, zehazki, 2008arte. Elgoibarren oso gustura sentitu zen hasieratik, herriko bizitza gustatzen zaiolako.

2005ean bertako emakume bat ezagutu zuen eta 2007an ezkondu ziren. Hamairu urteko alaba bat dute elkarrekin. 2008tik hona aluminio fundizio batean dabil lanean. Landa eremua eta natura gustuko dituenek, emazteak dituen lursail batzuetan baratzea lantzen du. Ortuan jardutea gustatzen zaiola esan digu.

Ling (Txina)

Familia kideekin batera Txinatik etorri zen 2000. urte inguruan bizimodu hobe baten bila. Txinatik ateratzen lehena bere aita izan zen; Madrilerara egin zuen bidaia. Bera, berriz, adin txikikoa zela iritsi zen Espainiar estatuko hiriburura, hamabost bat urterekin, bi anaia eta amarekin batera. Madrildik Kataluniara joan zen familia eta hiru urte egin zituzten bertan. Kataluniatik, gero, Bilbora joan ziren eta han zazpi urte egin zituzten. Handik Elgoibarrera etorri ziren eta, 2007az geroztik, Elgoibarren bizi da. Negozio bat darama bertan. Zein zaletasun dituen galdetzean esan digu etorri berritan ez zuela denborarik horretan pentsatzeko. Lan bat lortzea zuen xede. Oso gazte ezkondu zela kontatu digu, hemeretzi urterekin, eta hiru seme-alaba izan ditu ordutik. Lan egin eta seme-alabak hezteara izan du buruan orain arte. Egun dendan egiten du lan eta jendearekin hitz egitea maite du. Orain arteko bidea, lanean, borrokan eta ikasten egin duela esan digu.

Shahid (Pakistan)

Pakistangoa da eta hogeita hamalau urte ditu. Hamabost urte daramatza Espainian bizitzen eta horietatik hamabi Elgoibarren. Hemezortzi urterekin lanean hasi zen Pakistanen, baina ez zuen aukera asko eta lanean oso gaizki tratatzen zuten. Bizi kalitatea hemengoa baino askoz okerragoa zela diosku eta horregatik erabaki zuela etortzea. Ez zeukan familiarrik hemen, eta bakarrik egin zuen bidaia. Bidaia luzea izan zen ordea. Hasieran, Errusiarako bisa eskuratu zuen han ikasketak egiteko aukera hitzeman ziotelako. Iritsi orduko ohartu zen, baina, promesa hura faltsua zela. Errusiara ikastera zihoazela esan zietenek gezurra esan zieten, bertan ez zegoen inor beraien zain, ez eta hitzemandako eskolarik ere. Kanean geratu zen. Hango bizi baldintzak bere herrikoak bezain txarrak zirela dio eta horregatik, pixkanaka, honainoko bidea egin zuela Europa zeharkatuz. Frantziatik Bartzelonara eta handik Valentziara joan zen. Valentzian urte batzuk egin zituen eta, ondoren, Elgoibarko ezagun batek lanerako aukera gehiago izango zituela esan zionez, bertara joatea erabaki zuen.

Gaztea zenean jolastea, lagunekin paseatzea eta festa egitea gustatzen zitzaion. Orain, adin gehiagorekin lan gehiago egin, gutxiago atera eta etorkizuna planeatzea du xede. Iritsi berritan futbolean jolasten zuen, baina bere herrian beisbolaren antz handia duen jolas batean ibiltzen zirela esan digu, cricketean haiz zuzen. Elgoibarren herrikide asko bizi direla eta horiekin ere cricketean aritu izan dela esan digu.

BIZI BALDINTZAK ETA MIGRAZIO TESTUINGURUA

Elkarrizketatu ditugun jatorri askotariko herritarren artean, zenbait bizi aukera eta egoera antzeman ditugu. Egindako hamabi elkarrizketetan prekaritatea eta arrazakeria oso presente daudela ikusi dugu eta indarkeria forma desberdinen gorpuztea modu askotan gauzatzen dela (Jean Pierre 2017, 2).

Elgoibarrera bizitzera etortzeko hautua arrazoi ezberdinengatik egin dute batzuek zein besteek. Asko hautu propioz iritsi dira, gehienak, baina, familia harremanek edo beharrak bultzatuta. Hori dela eta, gehienek lan edo bizimodu hobea baten bila etorri zirela kontatu digute. Ikusi dugunez, batzuentzat Elgoibarrera iritsi arteko bidea luzea izan da oso; izan ere, bidean herrialde edo hiriburu asko igaro dituzte. Horri lotuta, Lekuonak, Annek edo Marcok, adibidez, argi dute euren bizitza Elgoibarren egin nahi dutela; Patxi, Aroa, Angie edo Fátimak, ordea, beren jatorrizko herrialdeetara bueltatu nahi lukete. Hobeto bizitzeko desira eta beharrak bultzatuta iritsi ziren asko hona, baina Aroa, Sekou edo Shahidi, adibidez, urrun geratu zaie amets europarra.

[1] Sekou: *Nire herrian jende askok dio, Europa oso ondo. Hona zatoz eta ez duzu lanik. Udala, Lanbide, ez dute lanik. Ez dut lagunik, ez ezer. Ez dut emazterik, ez senarrik, ezer. Ezkongabea naiz. Bizitza ez da erraza niretzat.*

[2] Aroa: *Ni hemen ez naiz zoriontsu. Zuen bizitza beste kultura bat delako, guk beste kultura bat dugulako. Hemen jaiki eta inork ez dizu esaten egun on, agian agurtuko zaituzte, agian ez. Han, esnatzen zara eta "Egun on auzokide!". "Egun on!". "Tori kafetxoa". "Olio pitin bat falta dut". Hemen etxean hil zaitezke ez dakizulako nori deitu.*

Hemen bizitzaren errealitatea ezagutzen duzu, pertsonen arteko desberdinkeriak, lan desberdinkeriak ikusten dituzu, nola atera bizimodua aurrera. Eta horrek arima zatikatzen dizu, eta zure baitan diozu, "nik beste zerbait espero nuen". Amari esan nion "ama, ezin dut. Amak, arimako minez "zatoz!" esaten zidan, guk han hona iritsi aitzin beste pentsamolde bat dugulako. Ulertzen? Eta nik esaten nion, "ama etorri nintzenean urduritasunak jota azal guztia gora joan zitzaidan". Ezin nuen jarraitu. Nire ahizpak ere sufritzen zuen hemen, eta esaten zidan "oraindik bueltarako txartela indarrean duzu". Baina nik dena utzi nuen, nire lanari uko egin nion eta ez dut itzuli nahi esku bat aurrean eta bestea atzean dudala.

Ez naiz zoriontsu. Nik han egon nahi dut. Baina, hemen egoera egunak pasa ahala okertzen ari da. Senarra eta biok datorren urtean joateko asmoa daukagu, ea zer pasatzen den. [...] Baina han ere gauzak... Atzera egin eta diot "joder! han gauzak oso gaizki daude gure alabarentzat, hezkuntza, kultura, hemengoak agian hobeak dira. Hemen ez dago indarkeriarik, ez daude hemen bezain seguru".

Elkarrizketatutako gehienak, Patxi, Cian, Lekuona, Marco, Anne, Shahid, Aroa urtean behin gutxienez jatorrizko herrietara bisitan joan ohi dira. Angie eta Sekouk, ordea, ezin izan dute jatorrizko beren herrialdetara itzuli paperik ez duelako batak eta dirurik ez bestea. Angiek, bederatzi urte egin ditu jada Euskal Herrian, eta gutxienez, hilabete batez bisitan joan nahiko lukeela esan digu. Sekouk, berriz, hamahiru urte egin ditu bere herritik kanpo.

[3] Angie: *Nikaraguara itzuli nahi nuke. Hemen bizimodu hobea dago, laguntza gehiago. Bi haurdunaldi izan ditut eta zaila egin zait paperak eskuratzea, lan egitea. Lan elkarrizketa batean ume batekin ikusi ninduten eta ezetz esan zidaten bi haur nituelako. Harrapatuta eta lotuta sentitzen naiz. Paperik gabe ezin dut nire sorterrira joan. Hilabeterako bada ere. Irteerarik gabe.*

Jatorrizko herrira bueltatzeko zailtasun eta ezintasunen atzean, argi dago herrialde horietako egoera ekonomiko eta politikoa, pobrezia eta prekaritatea daudela, baina baita Atzerritartasun Legea ere. Esan dugun bezala, elkarrizketatutako askoren migrazio prozesuak zailak eta gordinak izan dira eta arrazakeriak alderik alde zeharkatu ditu. Askori Elgoibarren edo inguruan familia edo lagun bat izatea lagungarri izan zaie. Elkarrizketatutako gehienek kasua da, Anne, Ana, Aroa, Patxi, Lekuona, Cian, Fátima eta Marcorena. Elgoibarren familia dutenen artean bi talde antzeman ditugu: baga, Euskal Herrian bizi eta jaiotako familiak dituztenak, ez arrazializatuak; eta, biga, lanera edo bizimodu berri baten bila etorri diren familia kideak dituztenak, asko arrazializatuak, baina ez denak. Hobeto azaltzearren, lehen kasuan, Marco, Lekuona eta Cian-ek Elgoibarren jaio eta bizi diren emazteak dituzte, euskara eta Euskal Herria gertutik ezagutzen dituzte hirurek. Hirurak gizonak dira, zuriak eta ez dute behar ekonomiko berezirik. Gainerakoen artean leudeke Fátima, bere senarra txikitatik Elgoibarren bizi izan dena; Ana, bertara iritsi zenean ahizpa Elgoibarren bizitzen zuena; Aroa, Elgoibarko lagun batek animatuta etorri zena; eta, azkenik, Ling, familiarekin batera (guraso, senar eta seme alabak) negozio bat sortzeko asmoz Elgoibarrera iritsi zena.

Familia sare horiek, lana edo etxebizitza aurkitzeko lagungarri izan zaizkie guztiei. Hala ere, nabarmena da lehen taldekoek erraztasun handiagoak izan dituztela. Era berean, jatorria eta azal koloreagatik estigma eta arrazakeria tarteko, alokairu, etxebizitza edo lana aurkitzeko zailtasun handiak izan dituzte askok. Euskaraz ez jakitea ere lana aurkitzeko oztopo dela esan digu Anak. Fátimak ere lanerako garrantzitsua dela eta horren berri ez zuela izan esan digu:

[4] Malu: *Adibidez, ni etorri nintzenean soilik gaztelera. "Badakizu gaztelera?. Ongi". Ez zidaten galdetzen euskeragatik. Oso garrantzitsua da lanerako, eskolarako, denerako.*

Familia edo lagun sarerik gabe Elgoibarrera heldu direnen kasua da Sekou eta Shahidena. Lehenak pateraz igaro zuen itsasoa hamabi urterekin. Bigarrenak, Shahidek, berriz, 18 urterekin ekin zion Elgoibarreraino ekarri zuen bidaia luzeari. Egungo bien egoera desberdina den arren, kontakizunean argi atzeman dezakegu bidaia bakarrik egiteak dakarren zaugarritasun, babesgabetasun eta bortxa. Horrela kontatzen du Shahidek bere esperientzia:

[5] Shahid: *Hemen senideak izanez gero, iritsi berritan zain zaitzakete. Lana izan edo ez, ez luke arazorik izango. Baina seniderik ez duenak, iritsi, eta, berria izanda, ez daki hizkuntza, nola komunikatu jendearekin, lana bilatzeko eta bizitza aurrera ateratzeko arazoak izango ditu. Gogorra.*

Hizkuntza ez jakitearen beste desabantaila bat da dependentzia eragiten duela.

[6] Ling: *Oso zaila da. Iritsi berritan ez badakizu ezer beste pertsoneri mesede eske aritu behar zara, eta agian pertsona horiek ez dute denborarik. Orduan, beste pertsonen mende zaude.*

Marko teorikoan azaldu bezala, Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritar gehienak, adin tarteari dagokionez, enplegurako sarbide adina dute (Uranga 2022, 10). Elkarrizketatuetako askok behin eta berriz errepikatu digute lanera etorri direla. Hori izan da herrialdez aldatzeko arrazoi nagusia eta lana aurkitzea bizirauteko lehentasuna.

Atentzioa eman digute aisialdiari buruz galdetean jaso ditugun hainbat erantzunek eta, bereziki, erantzun faltek. Aisialdian zer egitea maite duten galdetu diegunean, elkarrizketatu askok ez dute jakin zer erantzun; beste askok lana tarteko denbora librerik ez dutela aipatu digute. Gehienek denbora falta azpimarratzen dute etengabe. Emakumeak dira egoera hori bereziki aipatzen dutenak. Elkarrizketen aurkezpenean ikusi dugun bezala, Ling, Aroa, Angie, Anak... bizitzeko oinarritzko beharrak asetzeko ezintasunak aipatzen dituzte, besteak beste: lana edo alokairua aurkitzeko zailtasunak.

Carranza eta Gandariasek (2018, 92) esan bezala, bidaia ez da Europara iristean amaitzen eta migrazio prozesuetan berebiziko eragina du hizkuntzak. Horrela, iritsi zaren lekuko hizkuntza ezagutzeak edo ez guztiz baldintzatzen du bizimodua. Elkarrizketatutako lagunen kasuan, Elgoibarrera iristerako askok bazekiten gaztelania, batzuek jatorrizko hizkuntza dutelako, eta beste askok aurrez Espainiako zenbait herritan, nahiz Galizia zein Katalunian hilabeteak edota urteak egin zituztelako; esaterako Shahid, Patxi, Ana, Aroa eta Ling-ek. Fátima ere bi hilabetez egon zen gaztelania ikasten Elgoibarrera heldu aurretik. Lekuko hizkuntza ezagutu gabe bizimodua aurrera ateratzea zaila dela esan digute elkarrizketatuek, are gehiago heldulekurik, familiarik edo lagunik inguruan ez duzunean.

[7] Shahid: *Hizkuntza ezagutzen ez duzun leku batean zaudenean, ez daukazu nora joan, non jan, eta horrek larritasuna eragiten dizu. Beldurra ez dakit, azken finean larridura, eta pentsatzen duzu: "zer pasako da orain?"*

[8] Marco: *Kanpotik etortzen bazara eta hemengo hizkuntza bat edo bestea ez baduzu menderatzen, hasieran batez ere, oso zaila da hemen tramiteak egitea. Ez zen nire kasua baina ikusten dut beste pertsona batzuen egoera eta beraientzat oso zaila da.*

[9] Ling: *Lehen, hizkuntza ez nekienean, udalera edo bankura joan behar nuenean beldurra sentitzen nuen. Lagunduko ninduen norbaiten beharra nuen, ni baino gehiago zekien norbaitena. Ondo egingo duzun edo ez, kezka duzu. Jendeak ongi erantzun ote duzun edo ez galdetzen dizu eta gaizki erantzuteak beldur handia ematen du.*

USADIO ETA HARREMANAK

Esan digutenez, guztiek mantentzen dituzte jatorrizko herrialdearekin harremana eta bertako ohiturak ere. Anne, Shahid, Angie, Ana, Patxi, Aroa, Marco eta Lekuonak, egunero ez bada, astero izaten dute harremana beren familiako kideekin, guraso edo eta seme-alabekin; lagunekin ere bai batzuek. Komunikatzeko whatsapp-a, facebook-a, bideodeiak, telefono deiak eta aukeran dituzten sare sozialak erabiltzen dituzte. Ling eta Cianek harreman gutxi dute jatorrizko herrialdeko kideekin, Ling-en kasuan bere familia gehiena Elgoibar eta inguruan bizi delako eta Cian-en kasuan, berak esan bezala, komunikazio kontuetan desastre samarra delako. Sekouk ere oso gutxitan du senideekin hitz egiteko aukera.

Beren herrietako ohiturak mantentzea garrantzitsua da ia denentzat. Janaria, festa, erlijioa eta hizkuntza dira azpimarratu dituzten usadioak. Jatorrizko hizkuntza mantentzea garrantzitsua iruditzen zaie gehienei eta halaxe egiten dute, jatorri bereko komunitateko kideekin eta, etxean, familiakoekin mantentzen baitute. Cian da guztien artean jatorrizko hizkuntza mantentzen ez duen bakarra.

Sekouk ez dauka harreman asko senideekin. Elgoibarren ez duela inor diosku; ez lagunik, ez bikoterik, ez ezer. Elkarrizketatu ditugunetako gehienek beren herrialdeetako komunitateko lagunak dituzte. Shahidek esan bezala, herrikide batzuk aurrez ezagutzen zituen eta beste batzuk hemen ezagutu ditu. Saltoki edo tabernan lanean dabilzanek, Aroa, Ling, Shahid edo Cianek, lan esparruak jende askorekin harremantzeko aukera eman diela esan digute. Herriko elkarte edo ikastaro desberdinen bitartez leku desberdinetatik heldu diren herritarrak eta aurrez bertan bizi direnak ezagutzeko aukera eman diete askori. Markok *Baso Biziak* elkartean, kiroldegian edo eta AEKri esker taldea eraikitzen dabilela esan digu. Anak, berriz, Loreak elkarteko jostintza ikastaroen bitartez, emakume eta ama asko egin ditu lagun. Batzuk eta beste, pixkanaka ari dira sarea eraikitzen. Kasu honetan ere, batzuk lan esparrutik kanpo sozializatzeko denbora askorik ez dute beste batzuk, gehiago. Herrialde desberdinetako herritarrak biltzen dituen kuadrilla duenik ere bada. Hauxe diosku Lekuonak.

[10] Lekuona: *kuadrilla hemen dut. Asko lagundu zidan jendeak. kuadrillan, bikote errumarniarr bat, albaniarak, argentinarrak eta Ermuko bat gaude. Jende-nahasi multzo bat. Sei edo zazpi familia gara. Asko ezagutzen naute eta ezagutarazi egiten naiz.*

TXIRIKORDATUTAKO ZAPALKUNTZAK

Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritarrek dituzten bizipen linguistikoei eta euskararekiko pertzepzioari buruz hizketan hasi aurretik, uste dugu ezinbestekoa dela kolektibo gisa ezaugarritzen dituzten egoerei buruz mintzatzea, uste baitugu elkarrizketatuen gorputzean gurutzatzen diren askotariko zapalkuntzek errealitatea hobeto ulertu eta analizatzeko gakoak ematen dizkigutela. Izan ere, hizkuntzari lotutako bizipen eta pertzepzioak ezin ditugu gai isolatu gisa aztertu, ingurua zein testuingurua aintzat hartu gabe. Hori dela eta, jarraian, klaseak, jatorriak eta generoak, besteak beste, elkarrizketatu ditugun migratu eta, bereziki, pertsona arrazializatuei, nola eragiten dieten azaldu nahi genuke. Arestian azaldu bezala, Nicolas Jean Pierrek (2017, 14) proposatutako pobrezia etnokultural kontzeptuak, baldintza materialei, ekonomikoei, sozialei eta printzipio eta balio soziokulturalen multzoari erreparatzen die. Angela Davisek ondutako *Emakumeak, arraza eta klasea* (1981) liburuan eta marko teorikoan aipatutako *Trikua esnatu da* (2019) lanean, zehaztasunez azaltzen dute botere harreman eta zapalkuntza eta pribilegioen gurutzaketa interseksionalen nolakotasuna. Nahiz eta ikerketa kualitatibo honetan elkarrizketatutako pertsona kopurua txikia izan, bildu ditugun testigantzen emariari duten garrantzia eman nahi genieke, askok xehetasunez kontatu baitizkigute jasandako hainbat injustizia eta erraz osatu baitugu klasea, jatorria eta arraza txirikordatzen dituen zapalkuntzen argazkia.

Azterlan honetan, Soziolinguistika klusterrak egindako ikerketa kuantitatiboan azaleratutako hainbat ondorio berresten dira (Uranga 2022). Dominikar Errepublikatik eta Nikaragutatik iritsi diren Aroa eta Angieren elkarrizketetan etxeko zaintza lanak aipatzen dituzte, beraiek egin dituztelako edo inguruko familia kideak horretan ari direlako. Elkarrizketatu ditugun emakume gehienek bizitzako momenturen batean lan prekarizatueta jardun dute. Horrez gain, lana lortzeko arazoak azpimarratu dituzte, arrazakeria tarteko eta, kasu askotan, baita haurrak zaintzeko ardura izateagatik ere.

Zalantzarik gabe, generoaren aldagaiak zeresan handia du bizi-baldintzen alorrean. Immigrazioari lotuta, EAEn feminizazioa dagoela erakusten dute datuek, eta Elgoibarren ere horren aztarnak nabari dira (Uranga, 2022). Immigrazioaren feminizazioa prekaritateak ezaugarritzen du. Elkarrizketetan etengabe errepikatzen den esaldia da denbora faltarena. Sagastizabalek (2020, 17) *Hiruki gaztazkatsua* izeneko lanean aipatzen duen *doppia presenza* agerikoa da oso elkarrizketatuen bizitzetan. Emakume langileen presentzia bikoitza, bai etxean, bai etxetik kanpo lan egin behar izateak sortzen dien lan karga eta denbora falta mahai gainean jartzen dituelako agerian. Denbora falta hori erraz irudika dezakegu Aroaren eguneroko deskribapen honekin:

[11] Aroa: *Pentsa ezazu, lan batean lanean zaudenean, txanda zatikatuan eta alaba batekin. Ni beti korrika bizi naiz. Jeiki eta korrika, alaba eskolara eraman, korrika itzuli bazkaria jartzera, eguerdian lanera sartzeko. Lauretan alabaren bila joan, bueltatu, tartetxo bat egon berekin edo aktibitatearen batera eraman. Zazpitan tabernara itzuli. Horrela egunero.*

Argi dago ama migrante eta emakumeen bizimodua denbora gabeziak eta prekaritateak osoki zeharkatzen duela. Denbora falta hori hizkuntza berri bat ikasteko zailtasun eta oztopo nagusietakoa dela esan dezakegu.

Jatorrizko herriak atzean uzteko arrazoi nagusia bizi-baldintza hobekak eskuratzea dela esan digute gehienek, eta, hori lanarekin lotzen dute. Bizirautea eta lana dira, beraz, lehentasunak, argi eta garbi, beraientzat. Hala diosku Aroak:

[12] Aroa: *Ulertu behar dute gu hona lanera gatzela. Lanera etorri bagara, lanera da. Agian ikasteko aukera bagenu, bai, baina lehenik lana. Eta euskara jakin gabe lana lortzen badugu, emaguzue aukera (lanean ikasteko, esan nahi du).*

Elkarrizketatu gehienek hitz egiten dute gatzeleraz; zehazki, hamabitik hamarrek. Beste bik ulertzeko zailtasunak dituzte. Euskararen kasuan, argazkia oso bestelakoa da. Nahiz eta denek ezagutu hitz bat edo beste, eta batzuek zertxobait ulertu hizkuntza, hamabitik bakarra da euskaraz hitz egiteko gai. Emakume migranteen kasuan, esan bezala, euskara ikasteko oztopo nagusietakoak hauexek dira: denbora eta baliabide ekonomikoen falta. Horrez gain, Anaren kasuan adibidez, euskara ikasten ari den arren, hizkuntza praktikatzeko espazioak faltan dituela esan digu.

Elkarrizketatu ditugun lagunen artean arrazakeria eta bazterkeria ere, behin eta berriz, errepikatzen dira. Zailtasunik gabe, jatorriak eta azalaren koloreak bereizkeriak eragiten ditu arrazakeriari lotutako bizipen eta esperientzetan. Argi dago ez dela berdina europarra edo asiarra, afrikarra nahiz amerikar jatorrikoa izatea. Ez eta zuria edo beltza izatea. Klaseak edo ahalmen ekonomikoak ere eragiten du, noski. Ez da berdina ezta, europarra izanik, Italian edo Errumanian jaioa izatea. Azal dezagun elkarrizketatuek partekatutako bizipenen bitartez desberdinkeria horien atzean dagoen amalgama konplexua zertan datzan.

Arabiar jatorrikoak edo musulmanak direnen kasuan, arrazakeria oso agerikoa da. Ana eta Fátima biak marokoarrak dira eta zapiarekin bizitako diskriminazio egoerak kontatu dizkigute. Anaren hitzetan, zapia eraman edo ez, ingurukoak ez dira berdin hurbiltzen eta zuzentzen. Tratua desberdina dela diosku, zapirik janzten ez dutenengana errazago gerturatzen dela jendea, eta, zapia eramanez gero, berriz, errezeloz begiratzen dietela. Anak dio beloak lana aurkitzeko zailtasun handiak eragin dizkiola. Egoera hori dela eta, curriculumeko argazkitik zapia kendu eta txanoa ipintzea erabaki zuen, ilea solte utzita. Halere ez du lanik lortu. Saltegi zehatzen izenak aipatu dizkigu. Mercadonak migranteak ez dituela kontratatzen esan digu, eta Eroski, Clarel, BM eta antzerkotan izen arabiarra ikusiz gero ez dutela deitzen.

Shahiden iritziz, zailena ez da lana topatzea, non bizi baizik. Lana egon badagoela dio, eta zehazten du migranteei zuzendutako lanak daudela egun:

[13] Shahid: *Atzerritarra izateagatik zailagoa da gaur egun, bereziki, pisua aurkitzea. Lana ez nizuke esango, lana egon badago. Finean, badira atzerritarrek bakarrik egin ditzaketan lanak. Landa lana ez dizu nehork egingo, ez bazara atzerritarra. Nik zortea izan dut eta ez naiz aritu. Hizkuntza ez nekienean egun batzuk egin nituen, baina erregularizatu ondoren, baimena eskuratu eta azkar ikasi nuen gatzelera.*

Ilido beretik hauxe diosku Aroak:

[14] Aroa: *Esan dizudan bezala, ni han laneko arduraduna nintzen. Hona iritsi eta komunak garbitzera, - edozein zeregin egingo nuke, baina- haurrak horma margotu eta lau hanketan garbitzera behartzen ninduen andrearekin. "Jarri lau hanketan, garbitu!". Pentsa dezakezu, malkoak lurrera erortzen zitzaizkidan.*

Janzkera eta itxurari lotuta hauxe kontatu digute, adibidez, Ana eta Shahidek:

[15] Ana: *Arrazistak daude. Janzkera eta aurpegiagatik bakarrik epaitzen dute. Marokoarra zarela ikusi eta epaitzen zaituzte, besterik gabe.*

[16] Shahid: *Kalera ateratzean, norbait ikusi dezakezu esaten: "begira moro hori, nora doa?" edo edozer gauza. Batzutan gerta dakizuke, adibidez, autobus batean eserita egon eta pertsona batzuk arabiar edo asiarrak hartzean eseri baino nahiago dutela zutik joan. Batzuetan, amorru pixka bat sentitzen dut, ni pertsona normala bainaiz, langilea. Batzuk ez dute hitzez esaten baina beraien jarrerarekin gaizki sentiarazten zaituzte. Askotan, andre edo adineko norbait zutik ikusten dudanean eta ez duela eseri nahi sentitzen dudanean jaiki eta nire lekua eskaintzen diot, lasai eseri daitezen.*

Azalaren kolorea edo belztasunak ere arrazakeriarekin zuzeneko lotura du. Zenbat eta beltzagoa izan, orduan eta arrazializatuago, jasan beharreko zailtasun, bortizkeria eta bazterkeria handiagoa izan ohi da.

[17] Aroa: *Hemen arrazakeria asko dago. Emakume batek etxeko zaintza lanak egiteko kontratatu ninduen, eta etxeko lurra garbitzeko agintzen zidan. [...]* Hilabeteko alaba zeukan eta lau urteko mutikoa. Haurraren amonak ezagutu nindueanean, esan zidan ea nola aurki zitekeen haurrak zaintzeko pertsona beltz bat. *Nik negar, negar eta negar egin nuen.*

Elkarrizketatzailea: Zenbat eta beltzago, orduan eta zailago? Arrazakeria handiagoa?

Aroa: Tabernan bost euro edo ematen nizkion ez zuelako lanik aurkitzen. Beltza izateagatik. Ni baino beltzagoa.

Anne errumaniarra da. Hizketan entzun eta errumaniarra dela jakitean, askok aurreiritzi arrazistekin tratatu dutela esan digu. Italian jaiotako Marcokin alderatuta, ikus dezakegu jatorriaren arabera estigma sozialak ez duela zerikusirik batean zein bestean.

[18] Anne: 2011ean ospitaleratu nindutenean, lehen gelan bi ohe zeuden. Egun bat beranduago hemen inguruan bizi den emakume bat ingresatu zuten. Garai horretan hiztegi gehiago nuen eta berak ere maite zuen hitz egitea. Maxilarretako mina nuen horrenbeste hitzegiteagatik (barrez). Emakumea ez zen isiltzen, nik ere hitz egin beharra neukan. Nire azentua eta aurpegieragatik galdetu zidan, izena ere bai. "Baina zu nongoa zara?". "Errumaniarra". "Baina zuria zara". Hori izan zen erreakzioa. Baina zuria zara.

[19] Marco: Ez dut izan esperientzia arrazistarik. Hemengo jendea nahiko, ez nuke esango irekita, baina biltzailea da. Pertsona arrazializatu batekin edo nerekin agian ez da berdina izango. Baina ez dut inoiz izan esperientzia txarririk eta ez dut ikusi egoera arrazistarik. Egon egongo dira.

Patxi, Lekuona, Cian eta Marco gizonak eta zuriak dira eta arrazakeria egon badela dioten arren, beraiek ez dutela halakorik bizi esan digute. Zuritasunak lehen bistan jarrera arrazista asko saihestu arren, hizkuntza azentuak edo eta jatorria ezagutzeak aurreiritzi eta jarrera horiek aktibatu ditzakete. Anneren kasuan, errumanieraz hizketan ari dela entzun orduko askoren jarrera kolpean aldatu izan dela esan digu.

Era berean, arrazakeria pairatzeak ez du norbera aurreiritzi arrazistetatik saihesten. Hala erakusten digute honako bi esaldiek:

[20] Anne: Ijitu eta errumaniar migranteen olatua izan zen eta guztiok sartu gintuzten zaku berean. Ez zuten bereizketarik egiten esfortzu propioz iritsi ginenokin. Lana egin, inor molestatu gabe, bizitza irabaztera, legalki gainera (espresioa indartzen du). Baina, errumaniarrak ez. Errumaniar ijituak dira. Desberdina da. Zergatik? Horiek beti ekidin baitute eskola. Beraien ohiturak ikasten dituzte, ez dira burbuila propiotik ateratzen. Eta zer esan nahi du horrek? Zer egin dezakezu heziketarik ez baduzu? Lapurtu, prostituzioan aritu. Batzuk, eskulan batzuk egiten dakitenak, bereiztuago daude eta ondraduagoak dira. [...]
Orduan, horrek desberdintzen gaitu.

Marko teorikoan esan dugun gisan, gurean egiturazkoa da sistema arrazista (Jean Pierre 2017, 12) eta pobrezia gorpuz sozial, herrialde edo munduko eskualde zehatzekin duen harremanarekin lotura zuzena du. Horren erakusle da alokairua edo etxebizitza eskuratzeko elkarrizketatutako askok izandako zailtasunak. Horrela kontatzen du Maluk etxe-agentzia batean gertatutakoa:

[21] Malu: Nire senarrak Bergaran egiten du lan eta bere laguna hemengoa da, euskalduna. Eskatu zion, mesedez, "esaiozu emazteari Elgoibarren pisua bilatzeko". Nik ezetz esan nuen, hobe zela bera etortzea. Atetik, hitz egin gabe, hizketan hasi gabe. "Ez dago alokairurik, ez dago!". "Mesedez, utzi hitz egiten". Ez nuen ezer esan, kaixo ere ez. Atetik, "ez dago". Esan

nion, "mesedez, ez da niretzat". "Ez dago". Ez dute nirekin soilik egin eh...

[22] Aroa: Higiezinaren agentziara joan eta ez dagoela esaten dizute. Ezin duzula ordaindu uste dute. Zu joango bazina, hemengoa izanda, eta "bai, barruko patio bat dugu eta erakutsiko dizugu". Gertatu izan da hori.

Paperik ez izatea ere oztopo bikoitza da etxebizitza eskuratzeko orduan. Horrez gain, administrazio publikoan gertatutako zerbitzu eta harrera baztertzaileren testigantzarik ere izan dugu.

[23] Aroa: Anbulategian erreklamazio orria jartzera iritsi nintzen. Jatorriaren arabera desberdin tratatzen zaituzte. Biok joango bagina, ni ikusi baina zu pasaraziko zintuzkete. Eta zuri modu batera erantzungo lizukete eta neri beste era batera. Badakizu, nola ez zaren hemengoa ba hitzegiten dizut... zer dakit... Arbuioa sentitu dut. Hemen oso gaizki sentitzen naiz. Ezin dut. Gauza bakarra ez naizela hemengoa, baina, zu bezala ari naiz lanean, berdin, berdin.

[24] Angie: Zaila da hemen pisua aurkitzea. Arraroa da paperik izan gabe etxe bat alokatzea. Nik zortea izan dut, mutil horrek, lagun baten bitartez, ni ezagutu gabe utzi zidalako pisua.

[25] Anne: Guk garaian etxea erosi nahi genuen. Gure lagun batek bere auzo berean alokairuan bizi zen lagun bat zuen. Alokairua utzi zuenean, jabeek etxea saltzeko asmoa zutela esan ziguten. Etxe jabeak errumaniarrak ginela entzun zuenean, "ez errumaniarrak ez". Neskak bikote bat ginela eta erosteko asmoa genuela esan zion soilik. Baina berdin du. Errumaniarrak izate soilagatik ez.

Ikus daitekeenez, jatorri, genero eta klase zapalkuntzak amaiezinezko sorgin gurpila¹⁰ osatzen dute. Atzerriartasun Legeak, gainera, egiturazko arrazakeria eta desberdinkeria egoerak iraunarazi besterik ez ditu egiten. Zuria, klase ertainekoa eta estigma berezirik ez duen herrialde batekoa izanez gero, bizimodua askoz samurragoa izan daiteke. Zaku horretan leudeke Marko, Lekuona edo eta Cian. Pobrea, arrazializaturia, paperik gabea, emakumea (edo ez bitarra) eta jatorri estigmatizatu batekoa izanez gero, baina, bizimodua asko zailtzen da.

Muturreko egoera horretan aurkitzen direnen testigantzak jaso ditugu lan honetan. Anak, adibidez, lanik lortzen ez duenez, alokairua ezin ordainduta bizi da, gaizki egiten du lo eta kalean geratzeko beldur da. Alokairua ordainduz gero,

¹⁰ Sorgin-gurpila, sorginaren gurpil, gurpil zoroa, gurpil edo zirkulu bihiotsua ere deitua, gero eta indar edo magnitude handiagoz errepikatzen den gertakarien zikloa da, gertakariak elkarrekiko kausalitate erlazio batez lotuak izateagatik garatzen dena. Zirkularitate mota bat da. Ekonomian maiz gertatzen den fenomeno da, pobreak berak pobrezia areagotzen duten faktoreak (hezkuntza eta trebakuntza eskasa, osasun arazoak, ...) eragiten dituen esaterako; edota atzerakada ekonomiko batek kontsumitzaileen kontsumoa kaltetu eta horrek atzerakada areagotu egiten duenean. Giza-pedia. Informazio gehiagorako, ikus: <https://bit.ly/3ZQ718r>

haurrei jaten ezin diela eman esan digu. Askori delako sufritzen azpimarratu digu eta Lanbiden ez diotela kasurik egiten. Angiren kasua ere latza da. Haurdunaldia eta haurrak tarteko, lana bilatzea eta bere egoera erregularizatzea asko kostatzen ari zaiola esan digu. Bi haur ditu, eta horietako batek autismoa du. Lan elkarrizketa batean haurrekin ikusi zutenean lana ez ziotela emango esan zioten, bi haurren ama zelako. Momentu honetan, laguntza sozialei esker egiten du aurrera.

Azkenik, Sekouren egoera dugu. Etxea eta lana aurkitzeko zailtasun handiak izaten dituela esan digu, eta diru gabe bizirautea zaila dela. Hamabi urterekin iritsi zen pateraz, eta, begiradan noraeza nabari zaio. Psikologoarenera joaten dela esan digu, gauetan ezin duelako lorik hartu eta bere herriko garai eta egoera zailak datozkiolako burura.

HIZKUNTZA ERRADIOGRAFIA

ELGOIBARKO HIZKUNTZA TESTUINGURUARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Atal honi hasiera emateko, elkarrizketatu ditugun pertsonak Elgoibarko herritar, hiztun eta hizkuntza testuinguruari buruz zer nolako pertzepzio edo iritziak dituzten aipatuko dugu. Oro har, mahaigaineratu diren hiru ideia azpimarratu nahi genituzke. Lehena, eremu euskaldun eta gaztelaniarraren arteko bereizketa. Bigarrena, eta askok aipatu digutena, euskararen erabilera urria dela Elgoibarren. Horri lotuta, hirugarrena, Elgoibarren euskara jakin gabe bizi daitekeela, gaztelera jakin gabe, ostera, ezinezkoa dela.

Marcoen iritziak, "Elgoibarren badaude bi talde, bi eremu: euskalduna eta ez euskalduna. Eta, ez dira nahasten hainbeste. Ni sartu nintzen euskaldunean, eta, orduan, niretzat motibazioa izan da (euskara ikasteko)". [26] Eremu bat baino gehiago egotea ohikoa izan daiteke, baina, arreta deitu diguna da ez direla nahasten. Hori horrela izanda, Marcok dioen bezala, lur hartzen duzun eremu soziolinguistikoak bete-betean determinatuko ditu hizkuntza aukera eta praktikak. Elgoibarren, Anaren hitzetan, euskara baino gehiago entzuten da gaztelera. Aroak ere euskara eta gaztelera harremantzen zaren inguruarekin lotzen ditu. Elgoibarren bizitzen urteak daramatzaten askok euskaraz ez dakitela diosku. Lekuonaren iritziak, bere kasuan, Elgoibarren bizitzeak ez dio bermatu inguru euskalduna izatea, baina, uste du herri euskaldun batean bizitzeko gero ikasiko lukeela.

[27] Lekuona: *Azpeitian edo inguruko herri euskaldunago batean bizi izan banintz. Hemen Elgoibarren ez da horrenbeste entzuten euskara. Kaletik zoazenean gaztelania asko entzuten da. Horrelako lekuren batean bizitzea tokatu izan balitzait ikasiko nukeen, hizkuntza hori edo beste edozein. Kostatuko litzaidake, baina bai.*

Marko teorikoan azaldu bezala, elkarrizketatu gehienek gaztelania komunikazio orokorrerako ezinbesteko dutela eta halabeharrez ezagutu beharreko hizkuntza dela deritzote (Uranga eta Aierdi 2021, 74). Cian, Fátimak eta Annek, besteak beste, iritsi berritan gehienek gaztelerez egiten zieten esan digute. Shahid da gehiengoa euskaraz mintzo dela uste duen bakarra. Cian-i, euskararekin nolako harremana duen galdetuta, oso gutxi duela esan digu, eta bizitza lasai asko egin dezakeela euskara jakin gabe. Askotan errepikatu den ideia da hori. Cian, Patxi, Marcok, gaztelania soilik jakinda bizi daitezela diote, euskara bakarrik jakinda ez. Shahidek bakarrik esan digu euskara bakarrik jakinda bizi daitekeela Elgoibarren, baina era berean gaztelera ikasi beste erremediorik ez duela izan aipatu digu.

[28] Marco: *Erderaz jakin gabe ezinezkoa da, ezin da hemen bizi. Euskeraz hitz egin gabe bai, posible da, baina, beti, zerbait falta zaizu. Adibidez, ekitaldi pila batzuk euskeraz dira eta kalia nire lagunekin beraien artean hitz egiten dute euskeraz. Posible da, baina, beti, pixkat mugatuta zaude. Eta hemengo kultura ulertzeko ere oso garrantzitsua dala uste dut hemengo hizkuntza ezagutzea, bai. Hemen jende danak erderaz hitz egiten du, baina ez dana ez dute euskeraz hitz egiten. Euskeraz bakarrik hitz egiten baduzu pertsona batzuekin ezin*

duzu komunikatu. Lanian adibidez, -lan egiten duzun lekuan arabera desberdina da, baina-, nire enpresa multinazional bat zen eta Bilbon dauka bere bulegoa. Nire lankideen artean oso gutxi hitz egiten zuten euskera, gehienak erdera bakarrik, orduan, derrigorrezkoa da. Eta, beste aldean, ez dago arazorik jende guztiak erderaz hitz egiten du.

Testuinguru linguistikoak garrantzia handia duela erakusten dute testigantza horiek; horrez gain, gaztelania jakitea eta ikastea premiazko eta beharrezkotzat dutela jatorri askotariko herritarrek. Ostera, euskararekin ez dute iritzi berbera. Euskara jakitea edo ezagutzea ez da nahitaezko baldintza eguneroko bizitza aurrera atera ahal izateko. Hala diosku Ling-ek:

[29] Ling: Jendeak ulertzen duen hizkuntza ezagutzen baduzu, orduan beste bat ikasteko ez duzu horrenbeste animo. Ni orain arte lanean aritu naiz urte luzez eta hizkuntza ikasteko arrazoia beharra izan da. Zerbait behar dudanean, berdin du zer, ikasi egingo dut. Errazago ikasiko dut. Bestela, ez dakit zein beste motibo egon daitekeen.

Elgoibarren gaztelera jakinda zergatik bizi daitekeen eta euskara jakinda ez galdetuta, horrela erantzun digu Marcok:

[30] Marco: Nik uste dut horren atzean arrazoi historikoak dago. Hau da nire ikuspuntua. Segur aski Frankoren diktaduran zehar euskera debekatuta zen eta jende batzuk galdu zuen euskera, eta, gero denbora horretan imigratio nahiko handia izan zen Espainiatik. Eta, nola ezin zen euskeraz hitz egin Espainiatik etorritakoak ezin zuten edo ez zuten behar.

Migrazioak hizkuntza praktikan eragina izan duela uste dute Aroak eta Lekuonak ere:

[32] Aroa: Ni hemengoa naiz eta ez dut ongi hitz egiten (euskarari buruz ari da). Hemen ez gara asko bertan jaiotakoak. Hemen gauden denak kanpotik heldu gara, Galiziatik eta beste lekuetatik. Guztiok ari gara ikasten.

[33] Lekuona: Elgoibarren oso gutxi erabiltzen da. Nik uste hemen asko igartzen dela. Gaztelera askoz gehiago erabiltzen da. Euskara gehiago hitz egingo balitz nik askoz gehiago hitz egingo nuke, nik eta denek. [...] Adibidez, Debara bazoaz, euskara gehiago hitz egiten da, baita Mutrikun ere. Nik uste garaiko immigrazioak, industria iraultza garaikoak, eragin duela. Barne mailako migrazioak, Espainia mailakoak, ez kanpokoak: andaluziarrak, galiziarrok. Ondorengotzari lotuta, gazteei helarazten den zerbait da. Badakite euskara, baina, ez dute erabiltzen.

Aipatu dugun guztiari lotuta, azter dezagun nolakoa izan den elkarrizketatuek iritsi berritan hizkuntzari dagokionez izandako harrera.

IRITSIERA ETA HARRERA

Gaztelera jakin edo ez, elkarrizketatu askok Elgoibarrera iritsi berritan (eta ondoren ere) ez zuten Euskal Herria, kultura eta hizkuntza propioa duen nazio edo lurralde historiko gisa ezagutzen. Elkarrizketetan etengabe errepikatzen dituzte, "hemen, Espainian", "Espainiara iritsi nintzenean" edo gisako esaldiak. Gaztelania ikasteko betebeharra sentitu dute askok, maiz, hala aholkatu dietelako edo eta Espainian daudela sentitu dutelako. Espainiako hizkuntza bakarra gaztelera dela uste izan dutenak ere badira eta Elgoibarren edo eta EAEn euskara existitzen zenik ez zekiten elkarrizketatuetako batzuk.

[34] Shahid: *Gaztelera ikasi beste aukerarik ez nuen. Herrialde batera iritsi naiz, hizkuntza bat bada eta bizitzeko ikasi behar dut. Bai ala bai.*

[35] Ana: *Hona iritsi nintzen arte ez nekien euskara hitz egiten zenik. Espainian hizkuntza bakarra hitz egiten zela uste nuen.*

[36] Malu: *Hamazazpi urte daramatzat Elgoibarren bizitzen. Hasieran gaztelera bakarrik egiten nuen. Ez nekien ikasi beharreko beste hizkuntzarik zegoenik.*

[37] Aroa: *Amak galdetu zidan, "Zer da hori Aroa?", "Hango hizkuntza, hitz egiten duten modua"; "baina, nola da? zuk badakizu hitz egiten?" eta nik: "ez ama. Gutxi, baina, ez". Eta berak "baina zer da? nola ulertzen da? nola ulertzen zaituzte?. Eta nik: "ez ama, euskara eta gaztelera hitz egiten dira, eta ulertzen naute". Baina, harritu egiten dira. Ez dakite existitzen denik ere.*

Maluri eta Sekouri, iritsi berritan, Helduen Hezkuntza Eskolan (EPA) eta kaleko hainbat herritarrek gaztelera ikasteko aholkatu zieten.

[38] Malu: *Hona iritsi ginenean gaztelania ikasteko eskatzen ziguten, ez euskara. Leku denetan, eskolan, kalean, denean. Baina, gero lana eskatzean euskara eskatzen dizute. Oinarrizkoa jakin behar duzu. Jendea datorrenean bi hizkuntza daudela esan behar zaie eta ez bakarra. Iritsi nintzenean denek galdetzen zidaten, "badakizu gaztelera?". Ez zidaten galdetzen beste hizkuntzarik ba ote zegoen. [...] Baina, ez. Gaztelera eta gaztelera. Horregatik gaztelera ikasteko nituen indar denak. Ez nion euskarari erreparatu alabak eskolan hasi ziren arte. Hor ohartu nintzen, alabak eskolan hasi zirenean beste hizkuntza bat ere badela.*

Ez denek, baina askok, euskara jakiteko beharra lana eskuratzeko orduan sentitzen dute.

Azkenik, Fátimak kontatu digu, nahiz eta inguruko euskaldun askok euskara eta gaztelera ez zekizkiela jakin, euren artean euskaraz baina berari gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkiola. Patxik ere antzera diosku, bere lagun askok euskaraz egiten dutea, baina: " [...] gero *guiria* azaltzen da denek gaztelera egiten dute"[39]. Elkarrizketatu ditugun lagun guztien artean, Shahid da iritsi berritan herritar asko euskaraz zuzendu zitzaizkiola esan digun bakarra.

HAMABI BURU, HAMAIIKA HIZKUNTZA

Jarraian, elkarrizketatu ditugun pertsonen zein hizkuntza ezagutzen dituzten eta nola komunikatzen diren azalduko dugu. Irlanda, Italia, Albania, Errumania, Maroko, Mali, Nikaragua, Dominikar Errepublika, Argentina, Txina eta Pakistaneko herritarrak elkarrizketatu ditugu, hamabi guztira. Euskara eta gaztelera aparte, beste hamabost hizkuntza hitz egiten dituzte: ingelesa, albaniera, arabiera, berebera, mandarinoa, kantonera, italiarra, bambara, soninke, wolofa, urdua, punjabera, errumaniera, gaelikoa eta frantsesa. Elgoibarko hizkuntzen mapa oso anitza dela esan dezakegu, beraz.

Soziolinguistika klusterrak Elgoibarren egindako ikerketa kuantitatiboaren arabera, *jatorri atzeritarreko biztanleriaren %49,2k gaztelania du hizkuntza ofiziala jatorrian* (Uranga, 2022). Egin ditugun hamabi elkarrizketetatik hiruk gaztelania dute jatorrizko hizkuntza. Hirurak, Angie, Aroa eta Lekuona, Abya Yalako herrialdeetakoak dira; Nikaragua, Dominikar Errepublika eta Argentinakoak, hurrenez hurren. eta bertako gaztelera (gehiago edo gutxiago) mantentzen dute.

Angiek gaztelera du jatorrizko hizkuntza eta oinarrizko ingelesa menderatzen du. Euskara ikasten aritu zen bost hilabetez, baina buruan ez zitzaizkiola ezer gelditu aipatu digu. Aroak ere, antzera, gaztelera hitz egiten du eta ingeles pixka bat daki, garaian eskolan ikasi zuena. Lekuonak argentinarra hitz egiten du soilik eta eskolan, ingelesa ikasten oso txarra zela esan digu. Euskara, hitz egin ez, baina apur bat ulertzen duela dio. Hiruren kasuan, gaztelera eta ingelesa dira, beraz, ezagutzen dituzten hizkuntzak, baina, egunerokoan, gaztelaniaz egiten dute bizitza.

Afrikan jatorria dute Ana, Fátima eta Sekouk. Lehen biak marokotarrak dira eta hizkuntzari dagokionez, antzeko jakintza dute. Arabiera da txikitik ikasi zuten hizkuntza. Berberera ere badakite. Anak senarrarekin ezkondu ondoren ikasi zuen, bere familiak berbereraz hitz egiten duelako. Fátimaren kasuan, gurasoak berberera ere badakitela dio, baina berak, ulertu arren, ez duela ondo hitz egiten. Frantsesa ere biek dakite apur bat, eta Fátimak ingeles pixka bat ere bai. Anak gaztelera ere hitz egiten du eta euskaraz esaldi batzuk ulertzeko gai da. Fátima oraintxe ari da gaztelera ikasten, eta euskara ikasteko ikastaro batean izen eman du.

Sekou Malikoa da eta bertan banbara eta soninké hizkuntzak hitz egiten zituen. Familia eta lagunekin ikasi zituen bi hizkuntzak. Horiez gain, frantsesa eta wolofera apur bat ezagutzen dituela esan digu. Espainiara heldu zenean gaztelera ikasten hasi zen eta, orain, ondo menderatzen ez badu ere, hitz egiteko gai da.

Anne, Patxi, Marco eta Cian europarrak dira, errumaniarra, albaniarra, italiarra eta irlandarra, hurrenez hurren. Laurek menderatzen dute ingelesa eta gaztelera. Patxi eta Annek italieraz ere badakite. Elkarrizketatu guztien artean, Marco da euskaraz hitz egin eta komunikatzeko gai den bakarra. Cian-ek euskara eta gaelikoa zertxobait ulertzen ditu, eta Patxi eta Annek euskarazko hitz eta esaldi apur batzuk dakizkite.

Ling eta Shahid asiarrak dira, bata Txinatarra eta bestea Pakistangoa. Ling-ek Txinan mandarin txinera eta kantonera hitz egiten zituen. Mandarin txinera eskolan ikasi zuen eta kantonera familiarrean eta kalean. Espainiar estatura iristean, gaztelania ikasi zuen eta euskaraz hitz gutxi batzuk ulertzeko gai da. Shahidek, urdua eta punjabera hitz egiten zituen bere herrian. Urdua hizkuntza ofiziala dela dio eta punjabera Punjab komunitateko kideek hitz egiten dutela. Lehena, eskolan ikasi zuen eta bigarrena, etxean. Eskolan ingelesa ere ikasi zuen eta nahiko ondo moldatzen da. Espainiara heldu zenean, gaztelera ikasten hasi zen, eta, gainontzeko gehienek bezala, euskaraz hitz eta esaldiak ulertzen ditu.

HAN HEMENKAKO HIZKUNTZA TXIKI ETA EZ HEGEMONIKOAK

Elkarrizketatu ditugun hamabi lagun artean, jatorrizko herrialdeetako hizkuntza ofizialaz gain, hizkuntza gutxitu edo ez hegemoniko asko atzeman ditugu. Horien artean daude, banbara, soninkéa, wolofera, berberera, kantonera eta punjabera. Sekou eta Shahidek banbarera eta punjabera erabiltzen dituzte, nagusiki, Elgoibarraren, beren jatorri bereko herrikideekin. Ling-ek mandarin txinera hitz egiten du familiakoekin eta gainontzeko txinatarrekin. Kantonera edo zonaldeko hizkuntza deritzona, osaba, ama eta aitagarrearekin soilik erabiltzen du. Azkenik, Ana eta Fátimak arabieraz hitz egiten dute, baita herrikide eta senideekin ere. Berberera badakite, baina Anak senarraren familiakoekin hitz egiteko ikasi zuen eta horiekin soilik erabiltzen du eta Anak ez du sekula hitz egiteko ohiturarik izan.

Hizkuntza ez hegemoniko eta hegemonikoen arteko alderaketa egiten dute askok. Euskara eta gaztelania bezala, kantonera eta mandarin txinatarra, berberera eta arabiera, eta punjabera eta urdua aipatu dizkigute. Hona hemen hizkuntza horiei buruz esan dizkigutenak:

[40] Ling: *Guk bi hizkuntza ditugu. Bat zonaldekoa, euskara bezala. Txinak mila hizkuntza desberdin ditu. Zonaldeko hizkuntza deitzen diogu. Eta gero, mandarin txinera herrialde guztirako.*

[41] Malu: *Hemen gaztelarekin eta euskararekin bezala da. Marokon garrantzia gehiago ematen zaie arabierari eta frantsesari. Orain berberera egoera hobean dago, baina, nahiago dituzte arabiera eta frantsesa.*

[42] **Shahid:** *Ofiziala urdua da. Lurralde edo komunitate bakoitzean hizkuntza bat dago, eta askok hitz egiten dute. Gurea Punjabera da, Pakistango ia %50arena. Punjab komunitatearena. Urdua eskolan eta Punjabera etxean. Gure etxean denek, guraso, anai-arrebek, punjabera hitz egiten dugu. Urdua eskolan eta hiri handi batzuetan. Eskoletan ez dute punjabera klaserik ematen. Nik, adibidez, punjaberaz hitz egin dezaket baina idatzi ez. Hitz egiten dudana etxekoa da. Urdua idatzi daiteke. Uste dut estatu afera dela. Ez ditu hizkuntza asko nahi, bakarria mantendu eta lehenetsi nahi du. Agintariek, hezkuntza ministeritzak, horiek agintzen dute. Ez zaie interesatzen komunitateetako hizkuntza. Hemen gaztelerarekin bezala. Estatuak ez luke esango hemen denek euskaraz egiten dutela. Estatuak bere hierarkia mantendu nahi du denoi norabide berdina aginduz.*

Shahidek, faltan sumatzen du hezkuntza punjabieraz egiteko aukera izatea. Txinan ere, Ling-ek mandarin txinera ikasi zuen eskolan, kantonera, ostera, etxean. Horrez gain, aspektu mikro eta makroa desberdintzen dituzte. Hizkuntza hegemoniko eta ofizialak, handiak, orokorrak dira edonon erabiltzeko aukera ematen dutenak, ez hegemoniko edo txikiak, berriz, mugatuak, zona edo eremu zehatz baterako soilik erabili daitezkeenak. Ikuspegi horri lotuta, Shahidek, Pakistanen, herri txikietan Punjabera nagusitzen dela diosku eta, hiriburuetan, aldiz, urdua dela nagusi.

Aipatu ditugun hizkuntza ez hegemoniko horiek galtzeko kezka ere agerikoa da elkarrizketatuen artean. Desagertzeko arrisku hori euskarari ere atxikitzen diote batzuek. Fátimak berberera bezala ez luke nahi euskara desagertzetik. Desagertzearen diren hizkuntzak aipatuta, hauxe esan digu Shahidek.

[43] **Shahid:** *Horien artean dago Punjabera. Nire herrian ez dut ezagutzen Punjaberaz irakasten duten lekurik edo unibertsitaterik. Ez dut uste inoiz galduko denik, gure guraso eta aiton amonen hizkuntza delako, urte asko dituen. Galdu, ez da sekula galduko.*

Beldurra presente izan arren, nahiko argi du hizkuntzak, antzinatasuna eta transmisioa tarteko iraungo duela. Horri lotuta, hizkuntza ez hegemonikoak mantendu eta iraunarazteko transmisio lana egitea eta ondorengo belaunaldiei, norbere haurrei, erakustea gakoa dela dio. Izan ere, gobernuek ardura hori beregain hartuko ez dutela argi izanda, egiteko hori herritarrek bere gain hartzea beharrezkoa dela iritzi du.

[44] **Shahid:** *Gure seme alabei erakutsi. Guraso izatera iristen direnean, erakuts diezatela seme alabei. Estatua ez bada zutaz arduratzen, zu zeu arduratu behar zara. Zurea den zerbait sentitzen duzu. Seme alabei irakatsi eta doazen lekura doazela berekin eraman diezatela esan behar zaie. Nik uste dut hori dela modua. Edo taldeak, antzeko gauzak egitera...*

— HIZKUNTZAREN ERABILERA

HIZKUNTZA OHITURAK

Elkarrizketatu guztiek hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dutela ikusi dugu. Lekuan leku, testuinguruaren arabera, hizkuntza bat edo beste baliatzen dugu maiz, batzuetan, modu inkontzientean, eta, beste batzuetan, hautu propioz. Askoren kasuan, bizileku berri batera iristeak hizkuntza berriak ikasi beharra ekarri du. Hortaz, baita hizkuntza usadio eta praktikak aldatu beharra ere. Ikusiko dugunez, gehien-gehienek mantentzen dituzte jatorrizko hizkuntzak eta horiei eusteko antzeko estrategiak baliatu dituzte. Azter dezagun, bada, testuinguru bakoitzean zein hizkuntza baliatzen dituzten elkarrizketatuek.

Angie, Aroa eta Lekuonak gazteleraz egiten dute bizitza. Lekuonaren kasuan, etxean, emazteak eta alabak hitz egiten dute euskaraz, baina, hiruen artean, nagusiki, gaztelaniaz komunikatzen dira. Lingek Txinan kantonera familiatik jaso bazuen ere, bere seme-alabei mandarin txinatarra erakutsi die. Kantonera hitz solte batzuk soilik ezagutzen dituztela esan digu. Egun, Elgoibarren, etxean, familiarekin, mandarin txineraz hitz egiten du, eta kalean, berriz, inguruko herritarrekin gazteleraz.

Fátima eta Anak etxean eta marokoarrekin daudenean arabieraz hitz egiten dute. Fátimak haur txiki bat du eta arabiarrez hitz egiten dio. Anak, ostera arabiera eta gaztelera nahasten ditu hurrekin hitz egitean. Esan digu etxean semearekin gazteleraz hitz egiten duela, baina, senarra iristen denean, arabieraz mintzo direla. Marokoko herrikideekin izan ezik, gainontzekoekin gazteleraz hitz egiten dute. Shahidek, etxean eta lagun askorekin pujaberaz hitz egiten du. Kalean eta lanean, berriz, gaztelania da gehien baliatzen duena.

Patxi lehengusuarekin bizi da etxean eta albanieraz hitz egiten dute. Kalean, lagun gehienak bertakoak dituenaz, gazteleraz egiten du. Annek etxean errumanieraz hitz egiten du semearekin eta senarrarekin, kalean, ostera, gazteleraz. Errumaniera hitzen bat bururatzen ez zaionean soilik erabiltzen duela esan digu.

Marcok italiara, ingelesa, gaztelania eta euskara hitz egiten ditu. Lau hizkuntzak maiz erabiltzen dituen bakarra da bera. Etxean, hurrekin italieraz egiten du, emaztearekin italieraz eta euskaraz. Emaztearen familiarekin euskaraz. Herritar eta lagunekin gaztelaniaz edo euskaraz. Landetxeko bezeroekin, nagusiki, gaztelaniaz, baita ingelesez ere, sarri.

Sekou eta Cian dira jatorrizko herriko hizkuntza gutxien erabiltzen dutenak. Sekouk hizkuntza asko dakizki, baina Elgoibarren gaztelera eta wolofa bakarrik erabiltzen ditu. Izan ere, bere hizkuntza berean hitz egiten duenik ez du ezagutzen. Cianek gazteleraz soilik hitz egiten du herrian, eta ingelesa, nagusiki, familiakoekin telefonoz komunikatzen denean.

Nahiz eta egunerokoan euskaraz komunikatzeko gai ez izan, Ling, Lekuona, Ana, Sekou eta Shahidek oinarritzko hitz batzuk ezagutzen dituzte eta askok egunerokoan erabiltzen dituzte. Bereziki, agurtzeko hitzak baliatzen

dituzte: *kaixo, agur, egun on, arratsalde on, gabon, zer moduz?* Horrez gain, hitz solte batzuk ere bai: *eskerrik asko, ez horregatik, ondo pasa, poliki-poliki, kontuz...*

Ikusi dugunez, etxeak eta jatorriko komunitateek hizkuntzaren gordailu lana egiten dutela atzeman daiteke. Espazio publiko eta pribatuaren artean bada desberdintasunik. Gaztelania, hizkuntza hegemoniko gisa erraz gailentzen da kalean, baita lan eremuan ere. Jatorrizko hizkuntza mantentzeko estrategia transmisioa dela ere argi dakusagu. Denek erakutsi diete jatorriko hizkuntzaren bat euren ondorengoei. Ondorengoei transmisioa egin den kasu gehienetan, jatorriko hizkuntza ofizial edo hegemonikoa erakutsi dutela ere aipatzea garrantzitsua dela uste dugu. Hautu horrek hizkuntzen gaineko ideologia eta balioekin lotura zuzena duela pentsa dezakegu.

Azkenik, euskararen presentzia anekdotikoa da elkarrizketatu gehienen mintza jardunean, baina, ikuspegi sinboliko batetik, agurrak edo oinarrizko zenbait hitz euskaraz egiteko hautua zergatik egiten den aztertzea interesgarria izan daitekeela uste dugu.

HIZKUNTZA JABEKUNTZA

Jatorriko herrietako hizkuntza familiaratik jaso dute elkarrizketatu denek. Askok herrialdeko hizkuntza ofizialak ikasi dituzte, gerora, eskolan, Shahidek urdua, Sekouk frantsesa edo eta Ling-ek mandarin txinatarra. Horrez gain, Aroak, Annek, Shahidek, Marcok eta Lekuonak ingelesa eskolan ikasi zuten eta Patxik kalean, lehengusua emaztearekin, nagusiki.

Aurrez aipatu dugun bezala, Aroa, Lekuona eta Angieren jatorrizko hizkuntza gaztelania da. Hala ere, hiruretako inork ez du gaztelania estandarra erabiltzen. Bertako hizkeraren eragina izan duten arren, denek mantendu dute, era batera edo bestera, jatorrizko gaztelaniaren doinua eta azentua.

Gainontzeko elkarrizketatuak migrazio prozesuen ondorioz hasi ziren gaztelaniaz jabetzen, gehientsuenak bizirauteko eta lana eskuratzeko ahaleginetan. Anne, Ana, Fátima, Sekou eta Shahidek kurtsoren batean parte hartu dute noizbait. Halere, Anne, Patxi, Cian, Marco, Sekou, Shahid eta Lingek kalean edo lanean ere trebatu direla esan digute. Sekou eta Fátima izan ezik, besteak ondo moldatzen dira gaztelera. Euskarari dagokionez, Lekuona, Angie eta Marcok ikastaroren bat egin izan dute, baina kasu honetan ere, gehienek - Aroa, Cian, Marco, Shahid eta Ling-ek lanean eta kaletik jaso dute. Hitz eta esaldi solteak ulertu edo interpretatzeko gai direla esan digute askok, baina Marco da, guztien artean, euskaraz hitz egin eta komunikatzeko gai den bakarra. Azter dezagun bada, nolakoa izan den hizkuntzen jabekuntza prozesua.

Annek bi hilabete egin zituen Beasainen migranteentzat zuzendutako eskola batean gaztelania ikasten, baina, batez ere, hiztegia, kalea eta haurra izan ditu ikasteko aitzaki eta akuilu. Patxik, ingelesa bezala, Galizian bizi zela, kalean ikasi zuen gaztelera:

[45] Patxi: *Nik han ikasi dut gaztelera. Kalekoa. Ez naiz eskolan izan eta ez dut kurtzorik egin. Jendearekin hizketan, harremantzen ikasi dut. .*

Marcok, gaztelania, Elgoibarrera iritsi zen lehen hilabetean ikasi zuen, bere aldetik eta kalean. Cianek ere, bere kasa, notiziak entzuten eta ikusten, bi urtez kafetegi eta tabernetan entzuten ikasi zuen gaztelania. Lehen bi urtetan ez zuen hitz egin. Jendeari gauzak galdetzeak erreparoa ematen zion. Bikotearekin eta beste hiru lagunekin egiten zuen soilik. Pixkanaka hasi zen hizketan. Eibarren bere gustuko lagun kuadrilla ezagutu zuen, gustuko zuen jendea zen eta interesa eragiten zioten. Horiekin hasi zen gaztelera hitz egiten. Sekouk gaztelera, nagusiki, kalean ikasi duela esan digu. Horrez gain, tarte batez Helduen Hezkuntza Eskolan ere aritu zen ikasten. Anak Murtziara heldu berritan ikastaro desberdinen bitartez ikasi zuela esan digu. Fátima orain ari da gaztelera ikasten. Elgoibarrera etorri aurretik, Marokon gaztelera ikasteko hiru hilabeteko ikastaldia egin zuen. Ikasi arren, praktikatzeko espazioak faltan sumatzen ditu. Ling eta Shahidek ere gaztelania, nagusiki, kalean ikasi zutela diote. Ling-ek lanean eta kalean, entzuten eta jendearekin hizketan. Kurtso bidez ikasteko denborarik ez duela esan esan digu. Shahidek Helduen Hezkuntza Eskolan.

[46] Ling: *Badakigu ez dugula ongi hitz egiten gaztelera. Ezin da bertako jendearekin alderatu. Guk hizkuntza kalean ikasi dugu.*

Euskarari dagokionez, Lekuonak iritsi berritan hiru urte egin zituen euskaltegian ikasten. Hitz egitea kostatzen zaiola dio baina irakurri, elkarrizketa sinpleak jarraitu edo eta esaldiak interpretatzeko gai dela diosku:

[47] Lekuona: *Nire buruari esaten diot, "hau egiteke dut". Ea, niri hitz egitea kostatzen zait, irakurri agian, tira ez, baina interpretatu bai, gauzatxoak.*

Elkarrizketatzailea: Entender?

Lekuona: Ulertu gehiago. Elkarrizketak jarraitzeko gai naiz, luzeak ez, baina esaldiak. "Ni naiz Lekuona. Elgoibarren bizi naiz". Gauzatxo batzuk geratu zaizkit buruan.

Angiek bost hilabete egin zituen Elgoibarren euskara ikasten, baina, ez omen zion garrantzia askorik eman, ez duela praktikatuta eta, horregatik, ahaztu egin duela diosku. Aroa, berriz, ez da sekula euskaltegira joan eta euskaraz ulertzen duen apurra lanean edo inguruan entzunda ikasi du.

Euskaraz ederki moldatzen da Marco. 2004an, iritsi zenean, urtebetez, Hizkuntza Eskola Ofizialean euskera ikasi zuen. Batean eta bestean ibili ondoren, 2013an berriz itzuli ziren Elgoibarrera, eta, berrito, AEK-n izena eman zuen eta urte eta erdi egin zuen euskara ikasten. Duela urtebete B1 perfila ateratzeko ikastaro bat egin zuen. Kurtsoez gain, euskaraz irakurtzen eta irratia entzuten saiatzen dela esan digu.

Anak Aisa¹¹ taldean parte hartzen du eta bertan euskara ikasten dute. Bertan parte hartzen duen bigarren urtea

11 Aisa, euskaltegietan eskaintzen den harrera-ikastaroa, jatorri askotariko herritarrak euskarara hurbiltzeko.

da. Euskaraz dakiena, kurtsoetan ez ezik, semearekin ere ikasi du. Fátima ere Zabaltzenen euskara eta joskintzako kurtsoan apuntatu da aurten. Shahid, Cian eta Ling-ek euskaraz dakitena ere kalean ikasi dutela esan digute:

[48] Ling: *“kaixo”, eta zuk ere kaixo esaten duzu. Hori da. Jendeak hitz arruntak esaten dituenean nik ere ulertzen ditut. Euskaraz hitz egiten didate, eta nik jakin ez arren, batzutan badakit zer esaten didaten.*

Elkarrizketetan ikusi dugunez, gehienek kalean nahiz lanean entzuten eta praktikatzen ikasi dituzte hizkuntzak. Entzumena lantzeko askori lagundu diete irratia eta telebistak, baita aldizkari, egunkari eta liburuek ere. Ikastaro trinkoak egin dituztenak gutxi dira, gehienek tarte laburrak eman dituzte hizkuntzak ikasten. Kasu honetan, arreta eman digu euskara ikasten aritu diren hiru lagunetatik bakarra dela gai gaur egun euskaraz komunikatzeko. Ez da berdina gertatzen gaztelerekin. Eskola eta kurtsoetan aritu direnen artean ia denak dira komunikatzeko gai.

Jarraian, euskara eta gaztelera ikasteko zein abantaila eta oztopo izan dituzten azalduko dugu.

BIZIPEN LINGUISTIKOAK

Hizkuntza berriak ikasteko orduan, askotariko oztopoak eta abantailak izan dituzte ikerketa honetako protagonistek. Nagusiki, gaztelania eta euskara ikasteko aurkitu dituzten edo egun dauzkaten zailtasunak aipatuko ditugu, eta baita horiei lotuta, izan dituzten bizipen edo emozioak ere.

OZTOPO ETA ABANTAILAK

EAEEn, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira. Hori horrela, bietako hizkuntza bat ezagutzea, komunikatu ahal izateko abantaila nabarmena da. Aroa, Angie eta Lekuonaren jatorrizko hizkuntza gaztelania da, beraz, ez dute hizkuntza osorik ikasteko premia berezirik izan. Ling, Shahid, Sekou, Ana eta Patxik, Elgoibarrera heltzerako, bazekiten gaztelera, baina beraien herritik alde egin ondoren ikasi behar izan zuten. Fátima, Cian eta Marcok Euskal Herrira iritsita ikasi dute gaztelera.

Beraien hizkuntza eta gaztelaniaren artean antzekotasun asko daudela eta gaztelera ikastea erraz samarra suertatu zaiela esan digute Marco eta Annek. Biak dira europarrak, italiarra bata eta errumaniarra bestea. Oso bestelakoa da Ling edo Shahiden kasua. Lehena, txinatarra da eta bigarrena pakistandarra, eta noski, kantonerak, mandarin txinerak, urduak eta punjaberak ez dute gaztelerekin zerikusirik.

[49] Shahid: *Nik gaztelera denborarekin ikasi dut. Hasieran, ikasten hasi nintzenean, nioen “nola amaituko dut hori nola ikasiko dut?”. Azkenean, pixkana-pixkana, denborarekin ikasten zoaz. Ongi oroitzen dut ikasten hasi nintzenean*

esaten nuela: "arraioa, ama nerea, nola egingo dut!". Zaila da, oso zaila. Gero, pixkanaka ikasi eta azkenerako... Hasieran zeharo zaila iruditzen zitzaidan, baina, denborarekin, urteak pasa ahala arrunta, eta azkenean, pixkanaka ikasi dut.

[50] *Ling*: Guztia kostatu zitzaidan. Hasieran, denek esaten zidaten gaztelera erraza zela. Hizkuntza bat ez da inoiz erraza.

Lekuona, Angie, Fátima eta Anak euskara ikasteko ikastaro laburrak egin dituzte. Fátimak esan digunez, Zabaltzeneko ikastaroan bi lagunek bakarrik eman dute izena. Bere ustez, askok pentsatzen dute ez direla euskara ikasteko gai, eta nahiago dute gaztelera ikasi, garrantzitsuagoa iruditzen zaielako. Angieren kasuan, bost hila-beteko euskara ikastaroa egin zuen Elgoibarren, baina, Fátimak bezala, euskara praktikara eramateko espazio falta duela esan digu. Lekuonak ere euskararen presentzia faltak hitz egitea zailtzen duela esan digu:

[51] **Lekuona**: Euskara ez da kalean ikasten. Horregatik niotsun. Azkoitia, Azpeitia edo Markinan biziko banintz, egunero hitz eginda ikasiko nukeen.

Denbora edo baliabide ekonomikoen falta euskara ikasteko zailtasuna da askorentzat. Ling, Lekuona, Shahid, Anne, Patxi eta Aroak denbora falta aipatzen dute.

[52] **Shahid**: Tarteka jendea hizketan entzuten dut eta kuriositatea pizten dit. Zer esaten ari ote diren. Animatzen naiz eta pentsatzen dut "ikasiko dut". Baina, azkenean, lana dela, bestea dela, ez dut denborarik.

[53] **Anne**: Gizon batek euskara ikasi behar nuela esan zidan. Ez intentzio txarrez. baina, ez dut denborarik, bizitzak ez dit ematen.

[54] **Patxi**: Nahiko nuke, baina, denbora asko behar dut.

[55] **Aroa**: Kasualitatea, eskolatik eskuorri bat bidali zidaten alaba herri eskolan izateagatik ehuneko berrogeita hamarreko deskontua egingo zigutela esanez. Ez dago modurik ez dut eta denborarik. Zuk menderatzen duzu hemengoa zarelako. Nik ez. Nik, agian, ikasi nahi dut, baina, agian, ez dut denborarik, edo, agian, ezin dut.

[56] **Aroa**: Nik badakit, ulertzen dut agian ikasi beharko nukeela. "ikasiko zenuke? zergatik ez duzu ikasten?" Lagundu, bai, eskolara joanez adibidez. Baina, zein kostu dute euskara ikasteko eskolek? Uste dut gehienez lauhun edo berrehun. Ez dakit. Ez dut diru hori, ez dut astirik. Hizkuntza hori gabe horrela lan egin eta besteengandik ikasi ahal dudun bitartean, nik ezin dut luxu hori onartu, ez baitaukat dirurik. Euskara eskolak ordaintzea oso garestia da. Guk, obligazioak

ditugunok, handik gatozenok, ezin dugu luxu hori baimendu.

Euskara ez ikasteko arrazoen artean alferkeria ere maiz errepikatzen da.

[57] Cian: *Pixka bat damu naiz aurrez ikasi ez izanaz. Orain alferra naiz eta ez dut ikasiko. Badakit ez dudala ikasiko.*

[58] Ling: *Kontua da pixka bat alferra naizela eta horregatik ez dut gehiago ikasi.*

[59] Lekuona: *Eta alfer samarra ere banaiz. Ikasi behar duzu, ikastaroetara joan. "Ui, ez dut ezer irakurri". Ardura hori hartzea... Joateko ardura hartuz gero, bete egin behar dut. Horrez gain, izena emanez gero, bekak eta guzti daude. Dakizun bezala, euskaltegiek bekak eskaintzen dituzte eta ehuneko larogeia betez gero diruaren erdia itzuli. Zertarako xahutu dirua gero utziko badut, ez badut hitzemandakoa beteko.*

Hurrengo azpiatalean sakonago jorratuko dugun bezala, hizkuntza ideologiak euskara ikasteko oztopo izan daitezke. Hizkuntza zaila dela, ez dela horren garrantzitsua edo baliagarria eta ikasteko gai ez direla izango sinesten dute askok. Horrez gain, informazio falta ere oztopo handia da; adibidez, udalak eskaintzen dituen zerbitzuak ez ezagutzea edo dauden eskaintzetara moldatu ezina:

[60] Shahid: *Zailtasun handiena irakatsiko dizun norbait izatea da. Ikastera joan zaitezkeen leku bat izatea. Eskola. Gaztelaniako ikastaroak bezala. Azken aldian ez daude asko eh... Egia esango dizut, Elgoibarren klase bakarra dago hogeii pertsonentzat. Horrelako herri batentzat klase bakarra ez da aski. Ezagutzen dudak bakarra horixe da. Euskarari buruz ez dut ideiarik, non ikasi daitezkeen ez dakit.*

[61] Fátima: *Aurten euskara ikasi nahi dut, badut denbora baina ez dago ikastarorik. On-line ere ikasiko nuke, baina ez dakit aukera hori ba ote den.*

Jaso ditugun testigantza askoren kontrapuntua da Marcorena. Bere iritziz, euskara ikastea erraza da eta horretarako aski baliabide daude:

[62] Marco: *Nik uste dut, euskera ikasteko gogoia baduzu, oso erreza da. Erreza ez gramatikalki, erreza da AEK existitzen dalako eta bekak daudelako eta horregatik. Gero, euskera ikasteko zaila da baina bueno. Motibazioa eta gogoia behar dira, elkarrekin doaz, baina, gero daude laguntza pila bat. Ez ekonomikoak bakarrik. Herri bakoitzak badauka bere AEK eta saiatzen dira zure ordutegiakin moldatzen. Osea, erreztasuna, dana. Nire ikuspuntutik, ez baduzu ikasten ez duzulako nahi. Posible da eta erreza da leku bat topatzea eta ez baduzu dirurik, ez da arazo bat.*

bekak daude, doan dago oraintxe.

Euskara ez jakiteagatik esperientzia negatiboak izan dituzte batzuek. Eta hori ere ikasteko traba edo motibazio galera bilaka daiteke. Lan esparruan gertatu dira kontatu dizkiguten egoerak.

[63] Cian: *Gauza batzuk ikaragarri izorratzen naute. Taberna batean nengoen eta kuadrilla bat sartu zen. Denak gazteleraz hizketan. Eta gero, "zu! euskeraz bai eh!". Niri euskaraz hitz egiten hasi zitzaizkidan. Horrelako gauzeekin ezin dut. Denak gazteleraz ari zarete, gero "Kaña bat!" esateko.*

[64] Aroa: *Pertsona amorragarri asko dago. Lagundu beharrean, aurpegi txarra jarri edo hizkuntza berean hizketan jarraitzen dute. Hasieran asko sufritu nuen. Negar asko egiten nuen. Mosto bat eskatu, adibidez, sagardoa atera eta, "eh! ez duzu ulertzen", "Hemen euskara ulertzen duen jendea behar da". Nik lana behar nuela jakin eta jende horregatik, ulertzen...*

Abantailak baino desabantaila gehiago aipatu dizkigute elkarrizketatuek. Laburbiltzearen, hizkuntza praktikatzeko espazio falta, denbora eta baliabide ekonomikoen falta, alferkeria, gazteleraren nagusitasunaren aurrean euskarak bizi duen diglosia egoera, hizkuntza ideologia eta esperientzia edo eta bizipen negatiboak dira euskara ikasteko identifikatu ditugun oztopo nagusiak.

MOTIBAZIOA

Zailtasun eta abantailez aparte, garrantzitsua iruditu zaigu hizkuntzak ikasteko izan dituzten motiboak zeintzuk izan diren aztertzea. Esan dugun eran, gehienek gaztelania lana bilatzeko eta bizirauteko beharrezko sentitu dutelako ikasi dutela aitortu digute.

Elkarrizketatuei bereziki galdetu diegu euskara ikasteko izen duten motibazioa. Noski, guztiek ez dute euskara ikasteko motibazio bera, baina zerk bultzatuta ikasiko luketeen galdetuta antzeko erantzunak jaso ditugu. Euskara ikasteko arrazoen artean ideia hauek errepikatzen dira etengabe: sozializatzeko, inguruko pertsoneri ulertzeko, jakiteko, lana aurkitu edo seme-alabei laguntzeko ikasi nahi lukete. Hala esan digute:

[65] Angie: *Polita da jakitea. Hemengo pertsona gehiagorekin harremantzeko jakin nahi nuke.*

[66] Shahid: *Hemen gehiengoa euskaraz mintzo delako. Euskara jakinez gero zer esaten dabiltzan jakin dezaket. Horrela, norbaitek zerbait esaten badit euskaraz erantzun ahalko diot.*

[67] Ana: *Ikasi nahi dut, gehiago jakiteko gogoia dut, jendearekin hitz egiteko eta,*

bereziki, egoitzan lan egiteko. Eibarko egoitzan curriculuma onartu didate, baina ez dudanez euskara menderatzen, zaila da han lan egitea.

Semei etxean laguntzeko. Etxeko lanak izan ohi dituzte, eta euskaraz direnean ezin ulertu zein zeregin duten. Begira geratzen zara eta ezin lagundu.

[68] Fátima: *Garrantzitsua da baita. Hurrek bi urte dituztenean euskara soilik hitz egiten dute. Semeari laguntzeko eta niretzat ere bai. Jendea ulertzeko. Euskal Herrian pertsona batzuk euskaraz bakarrik hitz egiten dute.*

[69] Anne: *Hona iritsi nintzenean euskara ere ikasi nahi nuen. Semearengatik. Banekien eskolan euskara ikasi beharko zuela. Baina ez zen erraza beretzat, garaian, gaztelera ere ez baitzuen menderatzen, ez zuen hiztegi zabalik.*

Marco da guztien artean euskaraz hitz egiten duena eta bere kasuan motibazioa familia dela esan digu:

[70] Marco: *Lehenik eta behin familia izan da. Nire emazteak beti hitz egin du euskeraz nire seme-alabekin eta, orduan, zer esaten ari diren ulertzeko, hori motibazio oso gogorra da. Hori da lehena ziur aski. Gero, nire ingurua oso euskalduna da.*

Patxi eta Sekouk euskara ikasiko luketela diote, baina lehenak ez du denborarik eta beretzat ez da lehentasunezkoa; bigarrenak, ostera, ikasteko zaila dela diosku. Cianek ez dauka euskara ikasteko asmorik, baina, era berean zera dio:

[71] Cian: *Ez niregatik. Gaztelaniaz hitz egitea gustuko ez duen jende asko ezagutzen dut. Niregatik hitz egiten dute gaztelera. Eta hori ere ez zait ondo iruditzen. Apezkatzen dudana bada, beraiek nahi duten hizkuntzan hitz egitea gustatuko litzaidake.*

Iritzi horiez guztiez aparte, Lingek motibazioari buruz aipatzen duena esanguratsua dela uste dugu; hau da, ingurukoek ulertzen duten hizkuntza bat jakiteak, beste hizkuntza bat ikasteko motibazioa galarazi dezakeela. Motibazio falta Ling edo Patxik, besteak beste, denbora faltarekin lotzen dute zuzenean. Denbora izanez gero, agian, hizkuntza berriak ikasteko motibazio gehiago eduki daitekeela pentsa daiteke, denborarik ezean, osterantzean, zailagoa dela.

Azkenik, Marcok, motibazioaz honako hausnarketa egin du.

[72] Marco: *Gero eta gehiago hitz egiten bada euskeraz kalean eta ekitaldi gehiago egiten dira euskeraz eta, hori motibazio handia da. Ze bestela, jendeak ez du ulertzen eta, orduan, ikasi behar du. Ez dago besterik.*

ENTZUKETA

Zalantzarik gabe hizkuntza ideologiek, norbere aurreste zein pertzepzioek eta hizkuntzen arteko botere harremanek eragina dute entzulearengan. Arraza eta generoari lotutako diskurtsoek aurrean duguna entzuteko modua baldintzatzen dute. Horrela, hizkuntzak oso sakonean dauden elementuak ateratzen ditu argitara, besteak beste, hierarkia arrazialek eta historikoki ezarritako harreman kolonialen nolakotasuna. Marko teorikoan esan bezala “hizkuntzaz uste dugun hori bera uste dugu hiztunez eta hiztun komunitateaz, eta baita jendarteaz ere” (Agirre eta Eskisabel 2019, 38).

Analisian zapalkuntza desberdinak nola gorpuzten eta txirikordaten diren aztertu dugu, eta hor genero eta arraza aldagaiak duten inpaktuaz aritu gara. Emakumeak edo arrazializatuak gizarteak ez dituela berdin entzuten genioen eta arrazializazioa ez dela soilik gauzatzen fenotipo edo azal koloreagatik; janzkera, nazionalitate edo etnizitatea edo hizkuntzak ere eragiten dutela (Alonso, 2020, 199-200). Elkarrizketatuei galdetu diegu, jatorri desberdinetakoak izanda ea desberdin tratatu ote dituzten. Azalaren koloreak ez ezik hizkuntzak ere arrazializatzen duela adierazten duten testigantzak jaso ditugu.

Anne errumaniarra da eta azal zurikoa. Hizketan entzun orduko bereganako jarrera nola aldatu den sentitu du askotan. Hitz egiteko moduagatik ez baloratzea, bazter uztea edo berdin ez entzutea pasa ote zaion galdetuta, baietz erantzun digu.

[73] Anne: *Behin edo behin, entzun, hizkuntza ezagutu eta bizkar eman didate. Edo, gasolindegiko atea itxi. Zuk ez diozu deus esaten, ez begiratzen, baina norbait zu probokatu nahian dabil.*

Anak ere arabieraz hitz egiten entzunda, maiz, ez diotela kasurik egin esan digu. Aroak telefonoz deitu eta bere azentua nabarrituta desberdinkeriaz tratatu izan dutela esan digu. Hori dela eta, askotan, lagun bati eskatzen dio deiak egiteko

[74] Aroa: *Deiak egiterakoan, edozertarako nagusiari eskatzen diot. Marta (ezizena jarri diogu) deitu nire partez hona. Adibidez, kiroldegira deitzeko esaten nion, “Marta deitu alabak kiroldegian izen emateko”.*

HIZKUNTZARI ATXIKITAKO BALIOAK

Hizkuntza nortasun gordailu dela genioen (Vazquez 2020). Ezbairik gabe, lotura hertsia du kultura eta identitate atxikimenduarekin. Ikusi dugun bezala, elkarrizketatutako askok jatorriko hizkuntza beraien sustraiekin eta lurraldearekin lotzen dute:

[75] Patxi: *Ama hizkuntza ez da ahaztu behar. Leku batekoa edo bestekoa*

izan... nire hizkuntza da daukadan garrantzitsuena. Horrekin hezi naizelako, hizkuntzarekin, ez dakit. Nire herrialdea nirea da, bere zailtasunekin, baina, hori ez da pertsonen errua, politikarena baizik. Pertsonak oso onak dira, baina, politika, alde denetan bezala txarra da.

[76] Shahid: *Punjaba nire lurra da, nire jatorria. Nongoa naizen, nondik natorren, badakizu.*

Kulturak, identitateak eta hizkuntzak hiruki modukoa osatzen dute maiz eta harreman zuzena dute politikarekin. Bada hiruki horri eta politikak horretan duen eraginari kritika egiten dionik ere. Bere jatorrizko hizkuntzak emoziorik sorrarazten dion galdetuta zera erantzun digu Cianek.

[77] Cian: *Zerbait sentitu ... (hasperenka) Ni oso arraroa naiz. Irlandan eta hemen bada gauza hori duen jendea: gurea da. Kultura eta hizkuntzak. Azkenaldian konturatu naiz gauza batzuk, agian, ez zitzaizkidala horrenbeste gustatzen. Baina gustuko izan behar ditudala esan didate. Badira Irlandako gauza batzuk. Politika izan daiteke edo ez. Gaztea zarenean, jende jakin batekin bustitzen saiatzen zara, kultura omen den hori ikasteko.*

Egin ditugun elkarrizketen artean, badira familia edo jatorri euskaldunekin harreman zuzenagoa dutenak. Aurkezpenean esan dugun bezala, Lekuonaren familia euskal jatorrikoa zen. Horri lotuta bertakoa sentitzen dela dio eta kulturarekiko atxikimendu berezia duela. Euskararen erabilera urria, besteak beste, kulturaren transmisio faltari atxikitzen dio.

Marcoren emaztea eta familia elgoibartarrak dira, eta berak ere euskal kulturarekiko atxikimendu berezia du:

[78] Marco: *Sentitzen dut euskera hurbilago ingelesa baino. Ez dakit zergatik. Nik uste dut kulturaren arabera da. Ez dut analizatu eta aztertu, baina horrela da. Gaztelania ondo sentitzen dut. Italiako kultura eta Espainiakoa nahiko gertu daudelako. Eta hemengo, Euskal Herriko kultura, niretzat oraindik gertuago. Ze nik uste dut Italia iparraldeko kultura hemengoa oso antzekoa dala.*

Lehen esan dugun bezala, jatorrizko herrian hizkuntza gutxitu edo ez hegemonikoa hitz egiten dutenek, euskarekin parekatzeko joera dute. Hala ere, hizkuntzen artean garrantzitsuagorik ba ote dagoen galdetuta, askok hizkuntza hegemonikoak garrantzitsuagoak iruditzen zaizkiela esan digute. Hizkuntzei balioa esleitzeko orduan erabili dituzten argudioen artean hizkuntza ideologiaren eragina nabarmena dela ikusi dugu.

Bourdieu (2000, 121) adierazi bezala, hizkuntza batzuei besteei baino balio handiago edo txikiagoa esleitzen zaiela ikusi dugu, eta horri lotuta uler dezakegu elkarrizketatuek hizkuntza bat edo beste ikasi eta erabiltzeko egin duten hautua. Gaztelera hizkuntza global gisa deskribatzen du Marcok. Cian eta Shahidek denerako balio

duen hizkuntza gisa deskribatzen dute. Lingek hizkuntza kantonala eta mandarin txinera, euskara eta gaztelaniarekin parekatzen ditu. Kantonala eta euskara zonalde zehatz batean erabili daitezkeela dio eta gaztelania, ostera, Espainiako estatu osoan. Gaztelaniarekin batera, ingelesa ere hizkuntza garrantzitsutzat jo dute askok. Fátima eta Anaren iritziz, ingelesa eta espainiera edozein lekutan dira erabilgarri. Shahid eta Patxirentzat ere hizkuntzen artean lehentasunez ingelesa ikastea komeni da. Kuriosoki, ingelesa dakitenen artean, Marcok bakarrik esan digu erabiltzen duela. Cianen jatorrizko hizkuntza izan arren Elgoibarren ez du erabiltzen, eta Patxik ere gutxi. Annek, jakin arren, erabiltzen ez duenez, asko galdu duela esan digu.

Euskarari dagokionez, Angie, Cian, Ling eta Patxik hizkuntza erabilgarria dela diote, baina soilik Euskal Herrian. Hitz egiten den lekuan hizkuntza bakoitza garrantzitsua dela deritzote askok. Baina, bestetzuek, hizkuntza hegemoniko edo globalak txikiak baino garrantzitsuagoak direla uste dute eta, ildo horri jarraituz, euskara desagertu daitekeela ere aipatu digute.

[79] Patxi: *Hizkuntza komunak besteak baino, txikiak baino garrantzitsuagoak dira. Ez dut ezer bizi zaren lekutik kanpo ezagutzen ez diren hizkuntza txiki edo partzialen kontra. Lehentasuna du gehien hitz egiten dena ikasteak. Ez dakigu ehun urte barru zein hizkuntza hitz egingo dugun. Agian berri bat, posible da. Badira, garatzen diren gauzak, eta beste batzuk galdu egingo dira.*

[80] Fátima: *Ingelesa ikasi nahi nuke. Erraza da ezta? Baina gaztelania gutxi, ez? Euskara zailagoa da. Gaztelera hobea da, euskara ikastea zail dago. Hitzak ez ditut oroitzen.*

[81] Cian: *Hemen euskara mantendu daiteke baina oso zaila izango dela uste dut. Izan ere, gaur egun kanpoko eragina handia da, kanpotik, ni bezala, jende asko dator. Agian, euskarari izan beharreko errespeturik ez diotenak.*

Angie, Ling eta Anaren ustez, ostera, hizkuntzen artean ezin da sailkapenik egin eta denak dira garrantzitsuak eta duten balioa eman behar zaie.

HIZKUNTZA IDEOLOGIAK

Hizkuntza ideologiei erreparatuta elkarrizketatuen sinesmen multzoak eta hizkuntzari buruz dituzten sentimenduak adierazteko eta erabiltzeko baliatzen dituzten hitz eta esaldiak ezagutu ditugu. Aztertzerakoan ikuspegi dikotomikoa da arreta piztu diguna. Hizkuntzen artean zail eta errazak, moderno eta tradizionalak, funtzional eta ez funtzionalak... bereizi dituzte elkarrizketatuek. Zailtasun eta erraztasunei lotutako argudioak errepikatu dira gehien. Horien artean, euskara zaila dela errepikatzen duen mantra:

[82] Lekuona: *Ingelesa zaila zen eta nola ikasiko dut ba euskara. [...] Euskara*

ezingo nuke. Ea, esaldiren bat, oso ongi pentsatuta. Elkarrizketa bat eraman dezaket, baina praktikatu behar dut eta ez dut praktikatzen.

[83] Patxi: *Hizkuntza zaila da, Europa eta munduko zaharrenetarikoa. Badakit nahiko zaila dela hitzak esatea.*

Ikusten dugun bezala, zailtasunari bestelako ezaugarri batzuk ere atxikitzen dizkio, adibidez, Patxi. Europa eta munduko hizkuntza zaharrenetakoa dela dio. Marcok ere euskara altxor gisa ikusten du, "ze da oso-oso zaharra, antzinakoa eta oso berezia" [84]. Horregatik, euskara hitz egiteagatik harro sentitzen dela diosku. Cianek, bide beretik, hain zaharra eta munduko txoko honetan horren sustraitua dagoenez, euskarari horrelako garrantzia esleitzea ulertzen duela aipatzen du. Marko teorikoan esandako euskararen definizio barbaro, arkaiko edo zaharrenekin (Azurmendi 1992, 30) bat egiten du adierazpen horrek, eta, Agirre eta Eskisabelek aipatutako subaltemotasun gorputua (2019, 24) dakarkigu burura.

Euskara zaila eta gaztelera erraza dela diote beste batzuk: Ling eta Shahidek ez dute ukatzen euskara zaila denik, baina, beste edozein hizkuntza berri bezala ikasteak esfortzua eskatzen duela esan digute. Izan ere, biek hutsetik abiatuta ikasi dute gaztelania eta aurretik hitz egiten zituzten hizkuntzek ez zuten jatorri latindarririk.

[85] Ling: *Ez naiz horren espeziala sentitzen. Mundu guztiak dio, euskara, zeinen zaila. Ez da euskara zaila den bakarra. Baina, beste hizkuntzarik ez balitz existituko euskara ere ikasi beharko genuke. Azkenean hizkuntza denak dira zailak niretzat eta denentzat. Jende askok dio gaztelera errazagoa dela, baina ez dut uste ikasteko erraza denik.*

[86] Ling: *Nire ustez hizkuntza denek dute zailtasuna, bere denbora eskatzen dute.*

Askotan errepikatu den ideia da hurrek hizkuntzak errazago ikasten dituztela eta behin heldua izanda ikastea zailagoa dela:

[87] Ana: *Hurrek azkar jasotzen dute, baina guk, helduok, hainbeste gauza buruan izanda zailagoa zaigu.*

[88] Aroa: *Haurrak esponjak dira, hurrek ikasten dute.*

[89] Angie: *Gertatzen dena da, txikiak garenean irekiago dugula adimena. Gero jada ez. Adinak aurrera egin ahala adimena ixten joaten da. Ez da berdina. Txikiak garenean dena grabatzen da.*

PROPOSAMEN ETA ERRONKAK

Analisisiko azken atal honetan, elkarrizketatuek egindako proposamenak eta identifikatutako zenbait erronka zerrendatuko ditugu. Alde batetik, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko gakoak aipatuko ditugu; eta bestetik, jatorri askotariko herritarren hizkuntza ikaskuntza, bereziki euskararena, sustatzeko gakoak zein diren.

Hizkuntza aniztasuna nola kudeatuko luketeen galdetu dugunean, askok ez dute jakin zer erantzun. Shahid eta Fátimak argi dute beren hizkuntza eta ohiturak mantendu nahi dituztela, eta guretzat bezain garrantzitsua dela hori beraientzat. Arrazakeriak eta aurreiritziek pisu handia dute oraindik gure gizartean eta, horregatik, beraien ohitura, kultura eta hizkuntzak errespetua merezi dutela esan digute.

Hasieratik esan dugu, migrazio prozesuetan, iritsi berri zaren herriko hizkuntza ez ezagutzea oztopo handia izan daitekeela. Administrazio publikotik, zailtasun horiek samurtzeko eta hizkuntza aniztasuna kudeatzeko bitartekari kulturalaren figura proposatzen du Marcok. Zerbitzu publikoetan, arreta eskaintzeko orduan zubi-lana egingo lukete:

[90] Marco: *Segur aski ez daude aski baliabide hizkuntza aniztasun hori kudeatzeko. Orain, gero eta pertsona gehiago etorriko dira eta orduan beharko dugu bitartekari kulturalak. Eta figura hori existitzen da baina ez daude hainbeste. Udaletxean ez daude. Kanpotik etortzen bazara eta hemengo hizkuntza bat edo bestea ez baduzu menderatzen, hasieran batez ere oso zaila da hemen tramiteak egitea. Ez zen nire kasua baina ikusten du beste pertsona batzuk eta beraientzat oso zaila da.*

Shahidek teknologia berriek eta, bereziki, itzultzaileek lagundu dezaketela adierazi du. Kontuan hartu behar da, baina, teknologia horiek ez daudela neurri berean guztien eskura.

Hizkuntzak ikasteko aukerei lotuta, bereziki, euskararen ikaskuntzarako baliabide gehiago eskatu dituzte askok. Besteak beste, doakotasuna, ordutegien malgutasuna, plaza eta ikastaro gehiago izatea eta on-line eskaintza sustatzea proposatu dituzte. Horrez gain, ikusi dugu askok udal zerbitzuetatik ez dutela jasotzen euskara ikasteko dauden aukeren berri.

[91] Aroa: *Doakoa izateak asko lagunduko luke.. Dezente. Ze, begira, nire kasuan, asko ari naiz sufritzen alabak ez duelako ongi hitz egiten euskara. Ulertzen dut gure errua dela, ez dugulako euskara ezagutzen. [...] Ziur naiz beregatik joango nintzateke euskara eskolara nonbaitetik aterako nituzke bi ordu, egingo nuke sakrifizio hori. Baina ezin dut hori egin, bi ordu sakrifikatu eta gero berrehun edo hirurehun euro ordaindu. [...] Doakoa balitz asko izango ginake. Askok lagunduko luke eskola bat ipintzeak, bitan edo hirutan joateko. Kanpotik iritsi direnei, euskara ez dakitenei eman euskara ikastaro bat.*

[92] Elkarrizketatzailea: *ezagutzen al dituzu udalak euskara ikasteko dituen*

zerbitzuak?

Shahid: Badakit eskola bat badela, eta gaztelerako klaseak ematen dituztela.

Euskarari buruz ez dut ideiarik, ez dakit non ikasi daitekeen.

Anne eta Fátimak, euskara eta gaztelania elkarrekin ikasteko aukerak garatzea interesgarria izan daitekeela proposatzen dute. Angiek uste du ikastaroetan bi hizkuntzak nahastea baliagarria izan daitekeela. Adrianak, berriz, euskarazko euskarrietan gaztelanizako itzulpenak izatea lagungarri dela dio eta euskara ikasteko liburuxka moduko bat ateratzea proposatzen du.

[93] Adriana: *Liburuxka txiki bat atera daiteke jendea euskaraz ikastera animatzeko. Euskaraz eta gazteleraz ikasteko elkarrizketa sinple batzuk jarri daitezke. Askotan moduan, euskarazkoa handiz jarriz gero, eta azpian itzulpena gazteleraz, errazagoa da. Irakurtzean, hitz bakoitza zeinekin harremantzen den ikusi dezakezu. Informazioa askoz errazago atxiki dezakezu.*

Euskarari lotuta, bereziki hizkuntza praktikara eramateko espazio falta nabaritu dugu. Askok errepikatu digute, ikasi arren, edo zerbait jakin arren, praktikatzeko eremurik ez dutela.

[94] Angie: *Euskara praktikatu eta garatzeko aukera gehiago izan behar genituzkeela uste dut.*

[95] Ana: *Hitz egiteko eta ikasteko erraztasun gehiago izan nahi nituzke.*

Euskara praktikatzeko espazioak sortzeaz gain, Marcok uste du eskaintza kulturala euskaraz sustatzeak ere lagun dezakeela, alde batetik motibazioa pizten eta baita euskarari bultzada ematen ere. Euskara babestea garrantzitsua dela iruditzen zaio.

Amaitzeko, uste dugu, jatorri askotariko herritarren iritzia kontuan hartzea ezinbestekoa dela hizkuntza politika egokiak garatzeko. Baina ez hori bakarrik. Ikerketa honetan ikusi bezala, jatorri askotariko herritarren artean, zehar-lerro gisa landu beharreko aspektu asko daude, gizarte politikei lotuta hausnarketa eta eraldaketa garrantzitsuak eskatzen dituztenak. Elgoibarko herritar horiek dituzten bizi baldintzez ari gara, *doppia presenza* edo denbora faltaz (Sagastizabal 2020, 17), prekarizazioaz, lanaren araberako banaketa sexualaz, eta nola ez, egiturazko arrazakeriaz. Hizkuntza eskubideak bermatuko badira, ezinbestekoa da lehenik bizitza duinerako eskubidea bermatzea.

— ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

lkerketa honen muina izan da entzuketa aktiboa jasotzea eta bizipen zein pertzepzioak identifikatzea eta mult-zokatzea. Horiek ulertuz eta aitortuz, aukera berriak sortuko dira gurean sustatzen diren hizkuntza politikak eta euskara biziberritzeko dauden proiektu eta baliabideak indartzeko. Jatorri askotariko herritarren errealitatea ezagutu gabe nekez garatuko dira euskalduntzeko hizkuntza politika eta baliabide eraginkorrak.

Ikusi dugunez, elkarrizketatu ditugun jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko pertzepzioak askotarikoak dira, baina badira hainbat aldagai bizipen horietan zuzenean eragiten dutenak, besteak beste: generoa, klasea, jatorria zein arraza. Lan honetan elkarrizketatu ditugun guztiek migrazio prozesu bat egin dute. Elgoibarrera iritsi aurreko ibilbidea, askoren kasuan, luzea, mingarria eta, kasu batzuetan, bortitza izan da. Edonola ere, arrazoi desberdinak tarteko (gehienak bizi hobe baten bila), denek utzi dute beraien herrialdea atzean eta iritsi dira herri berri batera: Elgoibarrera. Prozesu hori familia sareak dituztenentzat edo gaztelera aurrez ezagutzen zutenentzat errazagoa izan da.

Gehienentzat, behin gaztelera ezagututa, ez da lehentasunezkoa euskara ikastea. Hori hobeto ulertzeko gakoa da bizipen linguistikoak eta euskararekiko esperientziak herritar horien bizimodu eta bizi baldintzekin estuki lotuta daudela. Lan honetan ikusi dugun moduan, arrazakeria eta prekaritatea jatorri askotariko herritar ugariaren eguneroko ogia dira. Baina, errealitateak askotarikoak dira. Alde hori nabarmena da, adibidez, Cian, Marco edo Lekuonaren egoera Angie, Ana edo Aroarenarekin konparatzen badugu. Lehen hirurak gizonak, europarrak eta klase ertainekoak dira, eta azken hirurak, emakumeak, amak eta oinarrizko bizi baldintzak justuki asetzen dituztenak. prekaritateaz dihardugu oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak daudenean, izan etxebizitza, izan lan duina edo izan bizi denbora falta. Horrek, zuzenean, norbere urgentzia, kezka eta errealitatetik harago pentsatzea oztopatzen du. Hizkuntza berri bat ezagutzeko interesa eta kultura berri baterako sarbidea zailtzen ditu, beste zerbait desira eta amesteko aukera, finean.

Prekaritateari lotuta, *doppia presenza* fenomeno aipatu dugu (Sagastizabal 2020, 17). Denbora eta baliabide ekonomikoen falta hizkuntza berri bat ikasteko oztopo da elkarrizketatu askorentzat. Aisialdirako astirik ezak, gainera, sexuaren araberako lan banaketarekin lotura zuzena du. Ondorioz, esan dezakegu prekaritatean bizi diren emakume migratu eta arrazializatuek euskara ikasteko zailtasun gehiago dituztela .

Marko teorikoan aipatu dugu eta analisisan egiaztatu arrazakeria egiturazkoa dela gurean, beraz, baita Elgoibarren ere. Elkarrizketatu ditugun asko arrazializatuak izaki, inguruan, kalean, administrazioan arrazakeria pairatu dute. prekaritateari arrazakeria gehituta, zailtasunak areagotzen zaizkie etxebizitza eskuratzeko edota lan prekarioetara kondenatzen dira. Egoera zaugarri horiek indartu besterik ez ditu egiten arrazakeriak; gainera, Atzerritartasun Legearen aterkipean sustatzen dira egoera horiek.

